



HITZ ZELAN
HITZ ZELAN

ELGOIBARKO IZARRAK ALDI BATERAKO AISIALDIKO ZUZENDARIA BEHAR DU.

ESKATZEN DA:

- Zuzendari titulua izatea.
- Aisia hezitzailean lan eskarmentua izatea.
- Euskara maila handia izatea, ahoz eta idatziz.

BALORATUKO DA:

- Psikopedagogia, Pedagogia edo Gizarte Zientzietako antzeko titulazioa izatea.
- Parte-hartzea, hezkidetzak edota inklusioaren inguruko ezagutza izatea.
- Lan taldeak koordinatzen esperientzia izatea.
- Euskalgintzan jardun izana.
- Elgoibarkoa edo ingurukoa izatea.
- Malgutasuna izatea, egutegi eta ordutegiari dagokionez.
- Gidabaimena eta autoa izatea.



Curriculumak bidaltzeko azken eguna **APIRILAK 8**

kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus

Zalantzarik izanez gero, deitu lasai 943 741 626 edo 643 499 169 eta Amaia Lasagabasterrengatik galdetu

LAN-DEIALDIA

Udaldirako hezitzaileak behar ditugu

ESKATZEN DA:

- Hezkuntzarekin zenikusia duten ikasketak amaituta izatea edota begirale titulua izatea.
- Ahozko euskara maila handia izatea.

BALORATUKO DA:

- Aisialdian lan-eskarmentua izatea.
- Elgoibarkoa izatea.
- Espezializazio ikastaroak egin izana.
- Hezkuntza Premia Behar Berezietako ikasketak nahiz esperientzia izatea.
- Herrigintzan jardun izana.

KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

- Hautagaiek proba bat egin beharko dute eta hautaketa-sistemaren irizpideen araberako merituek ere baloratuko zaizkie.
- Hautatuek oinarritzko prestakuntza-asteburu batean hartu beharko dute parte.



CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:
Apirilak 22, ostirala

Non eta nola:

+ www.elgoibarkoizarra.eus

+ 943 741 626 / 643 499 169

+ kudeaketa@elgoibarkoizarra.eus

JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea



Onak eta txarrak

Mundua mundu denetik, gerra guztietan beti egon dira onak eta txarrak, eta hori oso nabarmen gelditzen ari da Ukrainako gatazkan alderdi politiko eta komunikabide gehienek sinpletzera jotzen duten bakoitzean. Izan ere, nor bere iritzia izan dezan argibideak eman ordez, herritarrok adimenez edo adinez txikiak baina bezala tratatzen gaituzte. Ematen du beldurra dietela pentsamendu propioa duten herritar kritikoei. Esanekoak nahi gaituzte mundua nahierara kudea-

tzeko. Halarik ere, ezin uka, guda honetan, beste askotan ez bezala (Siria, Sahara, Palestina...), bestelako osagaiez bonbardatzen ari direla informazio handia izan dezagun. Orain badakigu errefuxiatuetan kategoriak daudela, Zelenski politikaria baino lehenago komediantea izan zela, eta EAjk ere Espainiako gainontzeko alderdiek bezala, Ukrainara armak bidaltzea begi onez ikusi duela. Hori bai, badaezpada, ez digute esaten Ukrainan, Errusian bezala, giza-eskubideak ez direla errespetatzen, NATOk 1991an Gorbačov-i haien mugatik hurbil nazio gehiago ez hartzeko hitza eman ziola, edota 2014ko otsailaren 22an, AEBek lagunduta (Obama lehendakaria zelarik), Ukrainan estatu-kolpea egon zela. Harrez geroztik, alderdi komunista legezkantokoa da Ukrainako demokrazia zin-

tzoan. Gainera, azken zortzi urteotan Errusiaren aldeko jarrera agertu duten Donetsk eta Luhansk lurraldeak etengabe bonbardatu izanak ez omen dio inori gehiegi axola, ezta Pablo Gonzalez euskal kazetaria Polonian atxilotuta egoteak ere. Inork ere ez daki AEBek zein Errusiak zer irabaziko duten, edota non geratuko den Europako Batasuna boterearen nazioarteko banaketan Ukrainako aferak emandako jauzia eta gero. Baina ziur gaude potentzia inperialisten arteko nork-zer kontrolatzeko guda amai-gabeen, erabakietan eta bere ondorioetan inolako kontrolik ez dutenak (guda pairatzen ari direnek, bereziki), edota ez dugunak, galtzaileak izango garela. Hori bai, oraingoan, beste askotan ez bezala, inor ez da libratuko, eta batzuk txarrak izango dira, eta beste batzuk txarragoak.

“Ezin uka, guda honetan, beste askotan ez bezala (Siria, Sahara, Palestina...), bestelako osagaiez bonbardatzen ari direla informazio handia izan dezagun”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskaltzaleen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuittzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola, Maialen Sanchez **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ TIPULAREN SEHASKA KANTA

Izen hau duen poema idatzi zuen Miguel Hernandez idazle eta poetak bere emaztearen gutuna jaso eta jateko tipula eta ogia besterik ez zeukala kontatu ondoren. *Nanas de la cebolla* poema osatu zuen orduan, bere seme txikia gogoan. 1942. urtean espetxean hil zen Miguel Hernandez, tuberkulosiak jota. Gertaera historiko hori oinarri hartuta, Lander Garrok film-dokumentala osatu du, espetxea eta gaixotasuna nola bizitzen den azaldu asmoz. Egun, 18 dira, gutxienez, larriki gaixo diren euskal presoak frantziar eta espainiar estatuetan. Askok dira espetxetik irten eta denbora gutxira hil direnak, azkena Antxon Troitiño. Egungo legeari ematen zaion interpretazioarekin, baldintzapeko askatasuna larriki gaixo dagoen preso laster hilko dela segurua denean bakarrik ematen du Espetxe Administrazioak. Hori izan da Antxon Troitiño, Otxoa de Eribe, Juan Mari Maizkurrena eta Oier Gomezekin gertatu dena, azken hiru urteetan hil direnak. Film-dokumental honen bitartez errealitate mingarri honek sortzen duena erakutsi nahi digu Garrok, espetxea eta gaitza ezagutu duten pertsonen, senideen, adituen... ekarpenak jasoz.

Elgoibarren, apirilaren 1ean, ostiralean, film-dokumental hau ikusteko aukera izango dugu, arratsaldeko 19:00etan, Herriko Antzokian. Lerro hauen bitartez, gonbidapen zabala egin nahi diegu elgoibartarrei. Sarrera doan izango da.

Bide batez, gaur, martxoak 25, preso gaixoen askatasuna eskatzeko egingo dugun elkarretaratzerara ere gonbidatu nahi ditugu herritarrok. Kalegoen plazan ikusiko dugu elkar, 20:00etan.

Sare Elgoibar

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dituharritaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelez datarren eskutitzik argitaratuko.

Idoia Juaristi Santos

2022ko martxoaren 18an hil zen, 54 urte zituela.



**Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.**

Juaristi familia






San Rokeko aparkaleku erdian uraren kanala jarri dute: “San Roken aparkalekua berriro dute, eta erdi-erdian egin dute uraren kanala. Aparkaleku batzuk geratzen dira hain justu kanal horren gainean, eta aparkatzerakoan errobera zuloan sartzen da. Obra bat egin ostean, ezin al zuten beste moduren batean egin hori?”.



Aparkalekuen marrak auto guztiek aparkatzeko moduan margotu behar dira: “Pista Beltzeko igogailuaren espaloi ondoan aparkalekuen marrak ez daude ondo margotuta. Espaloia aparkalekuan sartuta geratzen da, eta luzera normaleko ibilgailuek ezin dute ondo aparkatu guneretan. Ibilgailu luzeen kasuan, errubera espaloitik kanpora geratzen da, baina gainerakoetan errubera espaloi gainera igo behar da. Iruditzen zaigu guneretan badagokela marrak ondo margotzeko lekua”.



Txalo bat euskararen aldeko mezuak zabaltzeagatik: “Gazteak euren artean euskaraz hitz egiten entzuteak poza ematen dit, baina azkenaldian, poz gutxi ematen didate herriko gazteek. Autopistako zubipean sekulako grafitia margotu dute euskararen aldeko mezu batekin, eta hori ikusuteak poza eman dit. Horrelako ekimen gehiago egin beharko lirateke, Elgoibar apur bat euskaldunagoa egiteko”.



Eskerrik asko, bizikletak garbitzeko gunea jar-tzeagatik: “Txirrindulari asko gaude Elgoibarren, eta aspaldi sumatu genuen bizikletak garbitzeko gunea bat falta zela herrian. Kiroldegiaren alboan jarri dute, eta eskerrak eman nahi nizkioke arduradunari”.

Greban dauden kamioilarien protestak iritsi dira Elgoibarrera ere



Hego Euskal Herrian Hiru eta Tradisna garraiolarien elkarteek babestutako greba mugagabeak bederatzigarren eguna zuenean, martitzenean, Elgoibarrera ere iritsi zen grebalarrien protesta. Lerun industrialdeko sarrera-irteeretan pilatu ziren protestalariak, txaleko horiak soinean zituztela. Garraiolarien protestak iraun zuen tartean ertzainen auto ugari ere azaldu ziren Lerunera, bai eta istiluen kontrako Poliziaren bi furgoneta ere. Era berean, kamioilarien karabana ere pasatu zen joan zen astean Elgoibartik. Hiru sindikatutik adierazi dute azken urteotan okerrera egin duela euren egoerak eta aldarrikapenak berberak direla: "Inork ez dezala kostuen azpitik lan egin, tarifak gastuen arabera berrikus ditzatela eta garraioan diren jokabide makurrak kontrola ditzatela, besteak beste postontzi-enpresa, kooperatiba faltsu eta azpikontratazioarena".

Pedro Mugurutzako Eskola Zaharreko proiektua lantzeko parte-hartze prozesua hasiko du Udalak apirilean

Pedro Mugurutzako Eskola Zaharra eraitsi eta gaineko aldean herritarrentzako aire libreko eremua sortu nahi dute, baina proiektu hori parte-hartze prozesu baten bidez definitu nahi du Udalak. Eraikina eraitsi ondoren, 2.500 metro koadroko azalera duen espazioa geldituko da libre, eta hor zer egin erabakitzeko nahi dituzte herritarren ekarpenak, "auzotarren beharretatik eta auzotarren bizipenetatik abiatuta" lan egin nahi dutelako. Parte-hartze talde ahalik eta askotarikoena batzeko asmoz, Udalak modu aleatorioan deituko die zenbait auzotarri. 30 lagunez osatutako taldea sortu nahi du Udalak. Taldea osatuko dutenen profila honakoak dira: 18 eta 30 urte arteko gazteak, haur-gazteak dituzten gurasoak, helduak eta adinekoak. Horiez gain, gaur egun Pedro Mugurutzan kokatzen diren elkarrekin ordezkariei ere deituko diete, eta parte hartu nahi duten gainerako herritarrentzako bost leku gordeko dituzte. Parte hartu nahi duenak, hori bai, izena eman beharko du Herritarren Arreta Zerbitzuan edo emailez: arreta@elgoibar.eus. Izen-abizenak, NAN zenbakia eta kontakturako telefono zenbaki bat edo emaila laga beharko ditu. Izena emateko epea martxoaren 30ean bukatuko da. Lehen saio partehartzailea, berriz, apirilaren 5ean izango da, arratsaldean, Pedro Mugurutzako Eskola Zaharreko eraikinean bertan. Prozesuak hiru saio izango ditu, eta data zehatzak saio bakoitzaren bukaeran zehaztuko dituzte. 2022ko bigarren seihilekoan hasi nahi du proiektua idazten Udalak.

Lizagasarrera bisita egingo dute Hurbiltzen egitasmoan izena emandako familiek

Apirilaren 1ean (barikua) arratsaldean joango dira Hurbiltzen egitasmoan familiek Lizagasara sagartokira, 16:30etik aurrera. Han ekoizten dituzten produktuak ezagutzeko eta dastatzeko aukera izango dute, bai eta naturguneaz gozatzeko aukera ere, jolasaren bidez. Hurbiltzen egitasmoa Udalak eta Elgoibarko Izarrak sustatzen dute, jatorri askotariko familiek elkarrengana hurbiltzeko helburuarekin, migrazio fenomenoek sortutako aniztasunaren aurrean. Modu horizontalean sortutako harremanak bideratu nahi dituzte, elkarbizitza berdintasunetik eraikitzen eta kohesiorako hizkuntza euskara izanik. Egitasmoaren gainera informazio gehiago eskuratzeko edo parte hartzeko Elgoibarko Izarrako bulegora jo daiteke edo telefono bidez kontaktatu (943 741 626). Nahiago izanez gero, Elgoibarko Izarrako webgunean ere eman daiteke izena: elgoibarkoizarra.eus

Dislexiari buruzko hitzaldia hilaren 31n

Dislexiari buruzko hitzaldia antolatu du Dislegik, Gipuzkoako Dislexia Elkarteak Debabarreneko delegazioarekin. Dislexia zer den azaltzeaz gain, zer egin daitekeen azalduko dute. Aita Agirreko areto nagusian izango da, 18:00etatik 20:00etara. Edukiera mugatu izango da eta sarrera doakoa. Antolatzaileek eskatu dute Covid egoerako neurriak betetzeko.

Altzolako Karmen Plazako udal eraikinaren teilatua berritzeko lanak hasi ditu Elgoibarko Udalak

Martitzenean ekin zion Elgoibarko Udalak Altzolako Karmen Plazako udal eraikinaren teilatua berritzeari. Berritzeak 240 metro koadrori eragingo dio eta aurrekontua 36.773,40 eurokoa izango da, BEZ gabe. Obra Goki Erreformak S.L.k egingo du. Estalkia iragazgaitzian, isolamendua indartzean eta teilak ordezkatzean datza obra. Erreformak bi aste inguruko iraupena izatea aurreikusten dute.

Errusiaren inbasioa salatu eta Ukrainari babesera erakutsi dio Elgoibarko Udalak



Errusiako Gobernuak Ukrainari erasotzeko eta herrialdea inbaditzeko hartutako erabakiaren ondorioz, azken bi asteetan milaka pertsona hil edota zauritu dira eta milaka bonbetatik ihes egiten ari dira. Horren aurrean, Elgoibarko Udalak babes eta elkartasun osoa adierazi dio Ukrainari eta Udalean ordezkaritza duten alderdi politiko guztiek adierazpen instituzionala zabaldu dute. Lehenik eta behin, Elgoibarko Udalak Errusiaren eraso militarra salatu du eta indar militarrek Ukrainako lurraldetik erretiratzeko eskatu du. Era berean, biktimen kopurua biderkatu aurretik lis-karrak berehala bertan behera uzteko eskatu du, baita tropak Errusiar Federazioaren nazioarteko lurralde aitortura itzultzeko ere. Horrez gain, Udalak dei egin die eragile guztiei gerra-arriskutik urrundu gaituzten konponbideak bilatzeko, eta berretsi du ezberdintasunak Nazio Batuen Gutunaren esparruan konpondu behar direla, bide baketsu eta diplomatikoen bidez. Europako erakundeei eskatu die arreta eman diezaiela Europako beste herrialde batzuetan babes bila ari diren ukrainiarrei.


258. greba eguna atzo, zaharren egoitzetan

Lau urtez ari dira borrokan zaharren egoitzetan, eta atzo 258. greba eguna egin zuten ELAko langileek. Lehen prekarioa zen egoera, pandemiaren ondorioz are prekariagoa dela adierazi dute, eta lan baldintzak gero eta gogorragoak direla salatu. Bilerak eskatu dizkiete Aldundiari eta Patronalari, baina haiek "entzungor" egiten ditela salatu dute. Nabarmendu dute egoera honen aurrean egoiliarrek direla kaltetuenak eta borrokan jarraituko dutela.



24/7 plataformak legebiltzarrera eraman ditu 5.501 elgoibartarren sinadurak

24/7 plataformako kideek Eusko Legebiltzarrean erregistratu dituzte ambulatorioan egindako murrizketen kontra bildutako 5.501 sinadurak. Sinaduren erregistroa egiteaz gain, elkarretaratzera ere egin zuten legebiltzar aurrean, eta agerraldia egin zuten legebiltzarreko prentsa aretoan, euren eskaerak azaltzeko. Azaldu zuten Elgoibarko ambulatorioak 2010era arte 24 orduko zerbitzua eskaintzen zuela, asteko zazpi egunetan. Urte hartan erabaki zuten ambulatorioa gauerdian ixtea, eta horren aurrean, Eusko Alkartasunak bultzatuta, 2.000 sinadura baino gehiago bildu ziren. Geroago, baina, ambulatorioa 20:00etan ixtea erabaki zuten, eta duela bi urte hona, ambulatorioa 17:00etan ixten dute astegunetan, eta asteburuetan eta jaiegunetan itxita egoten da. Plataformakoen ustez, pandemia aitzaki bat baino ez da izan murrizketekin jarraitzeko. 5.501 elgoibartarren izenean, herritarrentzat kalitatezko osasun zerbitzua aldarrikatu zuten.



200 zuhaitz-landare sartu dituzte Elgoibarren eskola-umeek



Landanda ingurunea bizirik mantentzeko eta ingurumenarekiko kontzientzia sustatzeko, Zuhaitzaren Astea antolatu du Elgoibarko Udalak, herriko ikastetxeekin elkarlanean, eta horren barruan, 200 zuhaitz-landare landatu dituzte eskola-umeek asteon, Kalamuako lurretan. Astelehenean Herri Eskolako 50 ikaslek parte hartu zuten ekimenean, eta atzo, Elgoibar Ikastolako seigarren mailako ikasleen txanda izan zen. Guztira, 77 ikaslek parte hartu zuten. Pagoak, haritzak, urkiak, zumarrak... landatu zituzten eta egiteko horretan Elgoibarko Udal brigadako langileak izan zituzten lagun.

Anbulatorio aurreko igogailua erabiltzeko moduan dago



Bernardo Ezenarro eta San Roke kaleak lotzen dituen igogailuaren pasabidea berritzeko lanak bukatu dituzte, eta dagoeneko erabiltzeko moduan dago ambulatorio aurreko igogailua. Mantentze lanak egiteaz gain, irristakortasuna hobetzea izan da lanon helburu nagusia. Udalak hobetsi duen irtenbidea da gaur egungo egurrezko taulatuaren ordez altzairuzko xafra baten gainean hormigoizko zola bat jartzea. Bide batez, igogailuan ate berriak ipini dituzte.

Udan Saharako haurrak hartzeko familiak behar dituzte

Oporrak bakean egitasmoaren baitan, udan Saharako haurrak etxean hartzeko prest dauden familia bila ari dira Eibar-Sahara elkartekoak (Harremanetarako: Edurne 659 591 607). Pandemiak gogor jo du errefuxiatu kanpamentuetan, kanpo laguntzatik biziraun den herri batentzat, mugak itxita mantentzeak ondorio larriak dakartzalako. Pandemiari gerra gehitu behar zaio, gainera. 2020ko azaroaren 13an Marokok bertan behera utzi zuen su-etena eta geroztik "lotsaren harresia" babesten dihardute soldadu sahararrek.

Errotaberriko igogailu publikoa eraikitzeko lanak, lizitaziora

Errotaberriko eskailera mekanikoak ordezkaturiko dituen igogailu publikoa eraikitzeko lanen lizitazio prozesua zabaldu du Elgoibarko Udalak. Errotaberriko eskailera mekanikoek 2021eko martxoan laga zioten funtzionatzeari, eta arazo teknikoak handiegiak zirela ikusita, konpondu ordez igogailu publikoa eraikitzeko asmoa aurreratzea erabaki zuen Udalak. Tarte honetan idatzi dute proiektua eta URA Uraren Euskal Agentziaren baimena ere jaso dute obrarako. Orain, lizitazioa hasi dute. Proposamenak aurkezteko epea apirilaren 5ean amaituko da. Obra maiatzean esleitu nahi dute eta ekainean abiatu. Aurrekontua 554.762,45 eurokoa da, BEZ barne, eta hiztututako exekuzio-epea zazpi hilabetekoa.

109 ke detektagailu jarri dituzte 80 urtez gorakoen etxeetan

Suteen kontrako prebentzio zerbitzua jarri zuen martxan Udalak 2017an, eta horren barruan 340 ke detektagailu jarri dituzte 324 etxebizitzetan, debalde; horietako 109, iaz. 130 pertsonari egin zioten proiektuan parte hartzeko gonbita iaz, eta 111 herritarrek hartu zuten parte. Aurten, 77 lagunek beteko dituzte 80 urte Elgoibarren eta horiek eta onuradun izateko baldintzak betetzen dituzten gainerakoak ere gonbidatuko dituzte batzera.

HITZETIK EKINTZARA

Gaur zortzi, apirilaren 1ean, iritsiko da Elgoibarrera Korrika, euskararen aldeko ekimena. Saturion hartuko diegu lekukoa eibartarrei, 10:10ak aldera, eta herri osoa gurutzatuta, Sorraluzerako bidea hartuko du gero Korrikak [Mendaron ez da sartuko]. Hasi, baina, Amurrion hasiko da, martxoaren 31n, eta 11 egunez gelditu barik, Euskal Herria zeharkatuko du hogeita bigarrenenez, apirilaren 10ean Donostian amaitzeko. *HitzEkin* izango du lelotzat Korrikak, eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak omenduko ditu aldi honetan. 34 urtez euskaratik eta euskaraz egindako ibilbide oparoa aitortu nahi die AEK-k modu honetan: "Haien ibilbidean, euskararen transmisioa goitik behera (guraso-ume) eta behetik gora (ume-guraso) landu dute, eta zuzeneko eragin handia izan dute ume eta guraso askok euskararen aldeko hautua egin dezaten".

-AINARA ARGOTIA -

Urtebeteko atzerapenarekin bada ere, badator Korrika. Aurreratua zuen AEK-k, egin, egingo zela, Korrikak ekarri ohi duen euskararen "aldekotasuna eta harrotasuna" inoiz baino beharrezkoago jotzen zuelako. Izan ere, pandemiak euskara "ia errotik" ezabatu du plaza ugaritan zein askoren bizitzan. Baina hauspoa da Korrika euskaraz bizi nahi duen herriarentzat, ilusio zitzada, eta euskaraz bizitzeko herri gogoia badela erakusteko ekimen ikusgarria. Martxoaren 31n hasi eta apirilaren 10a bitartean, eskuz esku erabiliko dute Korrikaren lekukoa ehunka mila euskaltzalek Euskal Herri osoan zehar, eta jende uholdea batuko da Korrikara. Eta indar hori baliatu nahi du AEK-k urrats sendoagoak egiteko garaia dela gogorarazteko. Horixe bildu nahi izan dute 22. Korrikaren leloan bertan ere: hitzetatik ekintzetara pasatzeko unea dela; ekiteko garaia dela. "Hizkuntza bat hitzekin osatzen da, baina ekimenek eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea. Euskarak aurrera egin nahi badu, euskaldun (pro)aktiboak behar ditu, konbentzimendutik ekintzara,



praktikara, jauzi egingo dutenak". Alde egotetik konpromisoak hartzera bultzatu nahi ditu Korrikak herritarrek zein erakundeak. "Ernatzeko garaia da. Ekin diezaiozun berehala: aldekotasunetik konpromisora, eta konpromisotik erakunde orok urrats sendoagoak egin ditzan eragitera, jendartearen nahiei eta beharrei erantzuteko».

Baina gure hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzeaz batera, beste helburu nagusi bat ere badu Korrikak: gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea. Izan ere, administrazioen aldetik aurrerapausoak eman diren arren, badago oraindik zer hobetua euskaltegien eta euskalduntzearen beharrei erantzuteko. Helburu horri begira, hiru dira Korrikan jorratzen diren bide nagusiak: kilometroen salmenta, materiala-

ren salmenta eta ahal beste euskaltzale Korrika laguntzaile egitea. Eta ohi legez, fin erantzun dute herritarrek. 22 taldek egin dute kilometroa erosteko diru-ekarpena Elgoibarren eta bik Mendaron; Arno Guraso Elkarteak eta Mendaro Ikastolak erdibana. Hurrengo lerroetan, azalduko dizuegu zein ibilbide egingo duen Korrikak Elgoibarren, eta zeintzuk elkarrek hartuko duten lekukoa. Baina ez ahaztu: 10:10ak aldera iritsiko da Korrika Elgoibarrera gaur zortzi, eta Santa Ana kaleko biribilgunean egingo diogu ongietoria. *Ika, ika, ika, hemen dator Korrika* lelo ezaguna eta Sustrai Colinak 22. Korrikarako idatzi eta Nerea Urbizuk, Ane Garciak eta Anarik pop estilokan musikatutako kantua isildu gabe zabalduko du AEK-ren furgonetak Euskal Herri osoan. Erdu, bada, Korrikara!

Andoni Elorza eta Zuriñe Zangitu euskara hobetzen ari dira AEK Euskaltegian, eta haiek izango dira AEK Euskaltegiaren izenean gaur zortzi Korrikaren lekukoa hartuko dutenak.



ANDONI ELORZA

1. Korrikaren lekukoa eramatea ohore bat da. Euskaldun zaharra naizen aldetik, ilusio handia egiten dit Korrikaren parte izateak, eta aldi berean, euskara bultzatzen jarraitzeak. Beti izan dut momentu hau bizitzeko gogoia, eta AEK euskaltegiari esker, une hori iristear da.

2. Modu berezian bizi izan dut Korrika umetatik, giro paregabea sortzen delako. Eguraldi txarra egin duenetan edota gaueko ordu txikitik pasatu duen sortzen den giroak erabat harrিতa uzten nau. Euskaraz bizi naiz; horrela bizi izan naiz beti, eta euskara, zinez, harro sentiarazten nauen hizkuntza da. Azpimarratzekoa da AEK euskaltegiak ere zerikusirik handia duela guzti honetan.

3. Euskaraz egin dut beti lehen hitza, baina euskaldun zaharra izan arren, beti izaten da zer ikasia eta zer hobetua, eta titulua ateratzeko eta nire euskara hobetzeko asmoz eman nuen izena. Han batzen garenon artean giro ona daukagu eta halakotan beti ikasten da. Eta jakina, AEK euskaltegiako irakaslea den Amaiak eman didan babes eta laguntza guztiari esker, asko hobetu dut. Eta oso garrantzitsua den beste faktore bat ere bada: Amaiak eta Alfonsok, AEK euskaltegiako koordinatzaile eta irakasleek, euskara irakasteko duten konpromisoa eta Elgoibarren euskara sustatzeko duten ilusioa.

4. Orokorrean ezetz esango nuke. Hala ere, egia da batzuetan edo hainbat egoeratan ezin dudala gauza bera esan; eremu administratiboetan nabaritzen dut zailtasun handiena. Ez naiz eroso sentitzen egoera horietan; pena, tristura eta amorrua ematen dit. Pertsona aktibo eta kirolarizat daukat nire burua eta iruditzen zait urrats asko egin behar direla esparru hori euskalduntzeko. Gaur egun, euskararen ezagutza hazkundera egonkorra da, eta aldi berean, positiboa. Horrek erabat harrotzen nau; erabilera datuak, ordea, ez dira hain onak eta iruditzen zait lan handia dugula egiteko hor. Euskararen ezagutza eta erabilera ez dira erritmo berean handitzen ari eta horrek eragin zuzena du euskaraz bizi ahal izateko orduan. Euskaraz hitz egiten duten pertsonen ingurutzat saiatzen naiz ia beti. Saiatzen naiz euskaraz bizitzen, baina ez dago nire esku bakarrik. Norbanakoek egiten duten erabileran dago giltza.

5. Hitz joko bat da. Nahiz eta euskaraz jakin beste pauso bat eman beharra dagoela esan nahi du, ekintzara pasatu behar dela. Azken batean, euskarak aurrera egitea nahi badugu, herritarrek, elkarteek, erakundeek... beren ahotsa izan beharko dute beti euskara eta erantzukizunez jokatu.

1. Zer suposatzen du zuentzat Korrikaren lekukoa eramatea?

2. Nola bizi duzue Korrika? Eta, euskara?

3. Etxetik zarete euskaldun biok. Zer dela eta eman duzue izena AEK euskaltegiari?

4. Eguneroko bizimoduan, baduzue zailtasunik euskaraz bizitzeko?

5. 'HitzEkin' da aurtengo lema. Zer esaten dizue zuei lelo horrek?

ZURIÑE ZANGITU

1. AEKko irakasleak deitu zidanean, egia esan, harrotasuna sentitu nuen. Azken finean, korrika AEK erakundeak antolatzen duen euskararen aldeko eta euren euskaltegiei laguntza emateko ekimena delako.

2. Nire ustez, euskaldun guztiok parte hartzen dugun ekimen gutxienetakoa da. Ni, behintzat, parte hartzen saiatzen naiz. Duela bost urte Arbizun geunden, eta iluntzean Etxarritik pasatzen zenez, familian joan ginen. Euskara nola bizi dugun? Tamalez, euskarak duen bizitza gero eta ilunagoa dela esango nuke nik. Gazteak, gero eta gazteagotan hasten dira gaztelaniaz hitz egiten... Niretzat euskaldun izatea edo ez izatearen bereizgarria da euskara. Kultura eta ohiturak aldatu egiten dira, denboraren poderioz galdu eta beste kultura batzuekin nahastu. Zer den niretzat euskara? Euskaldun izateak esan nahi duenetik mantentzeko gauza bakarra.

3. Lan egiten dudan tokian lan eginda, alfabetatzeko beharra sentitu nuen. Hitz egiteko arazorik ez banuen ere, idazteko orduan hutsune handiak somatzen nituen eta horregatik erabaki nuen AEK euskaltegiaren izena ematea. Gaur egun, asko ikasi dudana arren, joaten jarraitzen dut, izan ere, bertan adin desberdin eta maila desberdinetako ikasleekin aritzen naiz gelan eta oso aberasgarria da. Gure gelan B2 eta C1 mailako ikasleak gaude, euskaldun zaharrak eta berriak. Denengandik ikasten dugu.

4. Orokorrean, nire inguruan euskaraz bizitzeko aukera badaukatu, baina egia da %100ean ez naizela euskaraz bizi, dela ez dakien jendeagatik edo dakiten askok ez dutelako hitz egiten. Esango nuke, zoritxarrez, bigarrena dela gehien ematen dena.

5. Beno, ba hitzak esaten digu dena, ez? Hitz eta ekin, bestela, galdu egingo dugulako gure hizkuntza eta horrekin batera, euskaldun izatea.

ELGOIBARKO IBILBIDEA eta LEKUKO ERAMALEAK

Saturio (10:10ean), Sigma, Sigmako biribilgunea, Santa Ana kaleko biribilgunea, Antonio Arrillaga, Kalegoen plaza, San Bartolome, Pedro Miguel Urruzuno, Bernardo Ezenarro, Txarriduna, Maalako parkea, San Frantzisko, Kalebarren plaza, Errosario, Santa Ana, burdinazko zubia (Kanposantu azpitik), Olasoko N-634ko biribilgunea, Sigma auzoa, Saturio (10:50).

Hauek dira martitzena arte kilometroa eskuratua zuten lekuko eramaleak.

- Ideko S. Koop
- Arno Guraso Elkarte eta Mendaro Ikastola
- Danobat Koop
- Alcorta Forging Group S.A.
- Elgoibarko Sanlo EKT
- Morkaiko Mendizale Elkarte
- PuntuEus fundazioa
- LAB-Rodisa-Schaeffler
- Elgoibarko AEK euskaltegia
- Mauxitxa Txaranga
- Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea
- Elgoibar ikastolako gurasoak
- Elgoibar ikastolako langileak
- EH Bildu Elgoibar
- Haritz Euskal Dantzari Taldea
- Meka Lanbide Heziketa, Institutua eta IMH
- Elgoibarko udal ordezkariak
- Elgoibarko udal langileak
- Haizea Emakume Taldea
- Txankakua Elgoibarko Merkataria Elkarte
- Biharko Gipuzkoa SL San Lazaro Egoitza
- Etxepe

KORRIKA KULTURALA EIBARREN

• MARTXOAK 26 (zapata).

Mendi-irteera kulturala. Ibilaldia eta Urkoko kobara bisita. Irteerak: 9:30ean Untzagatik, eta 10:00etan, Mañe nekazaritza etxetik (Mallabia). Eibarko Klub Deportibo eta Baso Biziak taldeetakoek gidotuko dute ibilaldia.

• MARTXOAK 30 (eguzatena)

'Barredromoa'. 18:00etan, Markeskoan. Zientzia, unibertsitatea eta UEUri buruzko umorezko bakarriketak. Aurkezlea Idoia Torregarai. UEUren laguntzarekin antolatua.

• MARTXOAK 31 (eguna)

Umorezko bakarriketa. '40 urte eta aldapan behera niek'. 19:00etan, Coliseoan. Eta Kitto!-ren laguntzarekin antolatua.

• APIRILAK 1 (barikua).

Bertso afaria. 21:00etan, Kultu tabernan. Bertsolariak: Unai Iturriaga eta Maider Arregi. Arrate Kultur Elkartearen eta Hanka Motxak bertso eskolaren laguntzarekin antolatua.

Beste Korrikak.....



2019an Mendaron egin zuten Korrika txikiko irudia.

KORRIKA TXIKIA ELGOIBARREN:

Elgoibar Ikastolak eta Herri Eskolak elkarlanean antolatu dute Elgoibarko Korrika Txikia gaur zortzirako, apirilaren 1erako. Maalan hasiko dute Korrika txikia, 14:40an eta 15:45ak aldera amaituko dute, Kalegoen plazan. Ibilbidea aurreko aldietako bera izango da: Maalan hasi, San Frantzisko kalea, Errosario kaletik Santa Anako Eroski pareraino joan eta Ubitarte kaletik barrena plazara itzuli, San Bartolome kalean behera egin Kultur Etxeraino eta Errosario kaletik barrena plazara itzuli. Bukaeran, mezua irakurriko dute udaltxeko balkoitik eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen kantu bat dantzatuko dute.

KORRIKA TXIKIA MENDARON:

Apirilaren 1ean egingo dute Korrika txikia Mendaro Ikastolako ikasle eta irakasleek. 15:00etan abiatuko dira eskolatik eta herri osoan barrena ibiliko dira euskararen alde korrika, mailaka banatuta. LHóko ikasleek aterako dute lekukoa ikastolatik eta Mendarozabaleraino joan eta ikastola parera ekarriko dute atzera. Han, seigarren mailakoei bosgarren mailakoak batuko zaizkie eta Intxarbakuntzan gora egingo dute, txokolateri parean laugarren mailakoei emateko lekukoa. Hiru mailetak hurrek batera egingo dute Errekabarren zubira arteko bidea eta han hirugarren mailakoak batuko zaizkie. Zubiaren erdialdera izango dituzte bigarren mailakoak zain, lekukoa hartzeko, eta botika parean pasatuko diete lekukoa lehenengo mailako ikaskideei. Haur Hezikuntzako nagusienek hartuko dute gero lekukoa, Coviran parean, eta geltoki parean pasatuko diete HH4koei. Eskolako arranplan zain izango dituzte HH3ko neska-mutilak eta ikastolako patioan, txikienak, 2 urtekoak. Hori dute plana, baina eguraldi iragarpenak baldintza dezake. Bezperan eguraldi txarra iragarria balego egunerako, eskolako patioan egingo lukete Korrika Txikia.

Goixan zerua eta behian lurra dauala geratu:
Dena galdu duen bati buruz esan ohi da, ezer gabe geratu den bati buruz.

Saxofoi-jotzaile gazteen lehiaketa egingo dute apirileko lehen asteburuan musika eskolan



Hamaikasax Saxofoi Elkarteak eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak bigarren goz antolatu dute Saxofoi-jotzaile gazteentzako Hamaikasax nazioarteko lehiaketa. 19 saxofoi-jotzailek hartuko dute parte, Espainia, Portugal, Frantzia eta Euskal Herrikoak, eta tartean, hiru elgoibartar arituko dira: Elaia Etxaniz, Unai Aizpuru eta Aimar Vigara. Apirilaren 2an eta 3an jokatu dute, musika eskolako auditoriumean. Zapatuan finalurrekoak, eta domekan, finalak. Zapatuan, bestalde, Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioko ikasleen ensemblearen emanaldia ere izango da, 19:30ean. Lehiaketaren itxiera ekitaldia Herriko Antzokian egingo dute domekan, eta sariak Udal Musika Bandak emango duen kontzertuaren baitan banatuko dituzte.

Giro onean ospatu dute Motxaila Eguna



Mendaroko Motxaila Elkarteak hainbat ekintza antolatu zituen zapatarako, udaberriaren etorrera ospatzeko. Bi urteko etenaldiaren ostean festarako gogoz zeuden motxailak, eta giro onean pasatu zuten eguna. Bertso saioa egin zuten bezperan, eta zapatuan ospatu zuten Motxaila Eguna. Aitzbeltz kobara igo ziren goizean, oinez, eta han kobaren historia azaldu zien Evaristo Rodriguez Morkaikoko Leizarpe Espeleologia taldeko kideak. Muskarik eta mokadurik ere ez zen falta izan koban, eta eguerdian bazkaria egin zuten Gaztetxean. Bazkalostean musikak girotu zuen Motxaila Eguna, Ostikda elektrotarangaren saioarekin arratsaldean, eta Muzak eta Altxa Porru taldeek eman zuten kontzertuarekin gauean.

Santanak antolatzeko bilera gaur, Mendaron

2022ko Santa Ana jaietako egitaraua zehazteko lehen bilera antolatu du Mendaroko Udalak. Lagun Betikoak elkartearen lokal zurian egingo dute, gaur, ostirala, 19:00etan. Udalak herritarrak gonbidatu ditu jaietarako ekarpenak egitera eta bileran parte-hartzera.

'Hackerrak' antzerkia bihar, Mendaron

Nomofobikoak antzerki taldeak *Hackerrak* antzezlanaren taularatuko du bihar, Mendaroko San Agustin kulturgunean, Udalak antolatuta. Ana Perezek zuzendutako umorezko obra da, eta Patxi Perez, Belen Cruz eta Olatz Beobide izango dira aktore protagonistak. Lanik ez dagoenez, robotika aztertzeke adimen emozionalerako proba batzuetan parte hartzea onartzen dute hiru aktoreek. Hala ere, probak egin ahala, hacker komando bat sortzeko edo Interneteko kable lodia mozteko beharraz hitz egingo dute antzezlanaren zehar. 18:30ean hasiko da. Sarrerak salgai daude udaletxean eta Morroskillon, 2 euroan.

Muzak taldearen kontzertua gaur, sotoan

Muzak taldeak kontzertua eskainiko du gaur, Kultur Etxeko sotoan. Debabarreneko hiru gaztek osatzen dute taldea: Joanes Iñurrieta soraluzetarra (gitarra eta ahotsa), Aitor Sagarmendi mutrikuarra (baxua) eta Ruben Irigoyen elgoibartarra (bateria eta koroak). Rock progresiboa egiten dute. Iazko urrian *Programaturik* izeneko lehen diskoa kaleratu zuten, eta Gaztea maketa lehiaketako finalista izan ziren. Joan zen zapatuan Mendaroko gaztetxean jo zuten, eta gaur, sotoan izango dira, 22:30etik aurrera.

Ekinean Debabarrean

Jende askok izan du noizbait ekiteko ideien bat edo beste, baina gutxitan eramaten dira aurrera ideia horiek, ekiteko ideia bat baino gehiago behar delako. Ekiteko ausardia behar da, ilusioa, baikortasuna, baina ahaztu gabe ekintzaile izateak arriskuak ere badituela. Ekiten hasi nahi duenak intereseko informazioa topatuko du orriotan.



Ekintzailetzaren abentura



JUAN ÁNGEL BALBÁS DEBEGESAKO
ZUZENDARI NAGUSIA

Schumpeter-en azalpenetara iritsi gabe (suntsipen sortzailea), ekitea ekintza bat garatzea da, izaera ekonomiko edo sozialeko jarduera bat garatzea. Baina, zerk bultzatuta ekiten dugu? Motibazioak askotarikoak izan daitezke, eta, seguru asko, pertsona bakoitzak arrazoi ezberdinak bultzatuta egingo du edo egin izan du. Azken batean, ekiteko ekintzak oinarri psikologikoak, soziologikoak, ekonomikoak, esperientziakoak, ezagutza handikoak... izan ditzake. Esan daiteke, hala ere, kasu gehienetan asmo edo ideia bat betetzeko helburuarekin hasten dela, edo aipatutako oinarrietako batetik eratorritako behar bat betetzeko egiten dela.

Bizi garen testuinguruan, duela hogeit urtetik hona, "beste batzuek ekin diezaioten" dioen aforismoa praktikan jarri dugu Europa mailan, eta hortaz, ekintzailetza ordu txikietan dago. Izan ere, Europako herritarrok ulertu dugu munduko fabrikek Asian egon behar dutela eta gure bizimoduak bestelakoa izan behar duela. Baina, pandemia batek eta gerra batek agerian utzi du digu ez dugula aurrez definitutako autosufizientzia-eredu energetikorik, edo gure herrialdean ez edukitzeak garestitu

egiten dituela aluminioa, olio edo garia. Hori guztia gertatzen da ekonomia-aren sektore guztietan ekiteko nahia galduz joan delako; bitzta hobea, erosoagoa (itxuraz) lehenetsi dugu baina ondorioz, gero eta mendekotasun handiagoa eragin digu.

Debabarreneko egoera oso bestelakoa izan da orain arte, izan ere, sen ekintzailea izan dugu eskualdean betidanik. 1923an, eskualde honetan zegoen espiritu ekintzailea benetan garrantzitsua izan zen eta hala erakusten du Ignacio Anitua enpresaburuak Villalavellari bidalitako gutunean nola azaltzen dion "...3 gurpileko motorrak, ibilgailuak, bizikletak..." egiteko gaitasuna. Borondate ekintzaile haren ondorioz, Debabarrenak oparotasun ekonomiko eta sozial nabarmena izan zuen, joan den mendearen amaiera arte iraun zuena. Gaur egun, oraindik gure inguruko beste edozein herrialderen bizi-maila homologa-

"Debegesan gure lana da ekintzailetzari buruz hausnartzea, eskualdeko espiritu ekintzailea bizirik mantentzeko"

garria duen eskualde industrialia izatea ahalbidetzen digu.

Horregatik, Debegesan gure lana da ekintzailetzari buruz hausnartzea, eskualdean hainbeste identifikatzen gaituen izpiritu ekintzaile hori bizirik mantentzeko. Gure gizartearen eta gure gazteriaren kontzientziak mobilizatzeko unea da, inoiz baino ezagutza handiagoa duen gizartea, ekintzaile izatera animatzeko. Ekintzailetza-jarduerak, gaur egungo merkatu-aukerek, gutxi edo batere ez dute zerikusirik izango aurreko mendearen hasierako jarduerekin, baina aukerak dira baita ere eta hor daude: energia berriztagarriak, datuen analisia, hirugarren adinekoen beharrak, ekonomia zirkularra, meta bertsoa, mugikortasun elektrikoa, elikadura.

Aukera horretaz jabetuta, erakundeek eta enpresek benetako ekintzailetza-ekosistema jartzen dute pertsona ekintzaileen eskura (inkubagailuak, laguntzak, aholkularitza, industria-eragileen lankidetzeta, BPTD Enpresa Elkartearen enpresa-harremanak, etab.).

Hausnarketa honen amaiera gisa, bizitzan abentura batean murgildu nahi duten pertsona guztiak animatzen ditugu, Debegesa eta Debabarreneko gainerako eragileekin elkarlanean, ideia hori martxan jartzeko.

Argitaratzailea: Debabarreneko Komunikazio Taldea

Erredakzioa: Ainhoa Andonegi, Ekhi Belar, Dorleta Vidal, Ubane Madera, Izaro Aulestiarte

Publizitatea: Leire Rubio, Belen Ulazia, Dorleta Vidal, Oier Larreategi, Alex Turrillas

Diseinua eta maketazioa: Oier Larreategi

Tirada: 18710 ale

dkt
Debabarreneko
Komunikazio
Taldea

Eskualdeko ekintzaileen laguntzaile

DEBEGESA

Debegesa Garapen Ekonomikorako Elkartek garrantzi berezia ematen dio ekintzailetzari. Horren adibide dira handik irten diren ekimen eta programa guztiak, eta han aurkitu ditzakegun azpiegiturak.

Ane Iturzaeta da Debegesako ekintzailetza teknikaria eta, esan digunaren arabera, mota guztietako proiektuak artatzen dituzte. “Bakoitza fase ezberdinetan etortzen da, baina fase guztietan laguntzeko prest gaude”, diosku.

Proiektu bakoitzak bere ezaugarriak ditu, baina jarraitu beharreko pausoak antzekoak dira guztietan. “Hasteko, ideia lantzen dugu erreminta ezberdinak erabiliz. Gero, merkatu kontrastea egitea gomendatzen dugu, ideia merkatuan txertatu daitekeen ikusteko, eta ondoren, bideragarritasun-plana egiten dugu. Proiektua bideragarria bada, hura martxan jartzeko pausoen inguruko informazioa errazten dugu: forma juridikoa erabaki, lizentzien izapideak zeintzuk diren azaldu, baimenak non eskatu...”, argitu digu Iturzaetak.

Aipatutako pausoetan bidelagun izateaz gain, proiektuei balio erantsia ematen saiatzen dira Debegesan, batez ere digitalizazioaren eta berrikuntzaren arloetan.

Bidea osatzeko, azkenik, dirulaguntzen inguruko informazioa eskaintzen dute. Debegesak eskualdeko udalek eta bestelako erakundeek ematen dituzten laguntzen berri ematen du, eskaeraren lehenengo pausoak egiteko jarraituko beharreko epe eta pausoez gain.

Make in!

Iturzaetak esan bezala, mota ezberdinetako proiektuak garatzen dira Debabarrenean. Baina, industria da eskualdeko indarguneetako bat, eta, hori bultzatzeko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko asmoz, BPTD Elkartearekin batera ‘Make in!’ industria-ekintzailetza programa jarri dute martxan.

Lehenengo edizio honetan hiru enpresak hartuko dute parte apirilean hasiko den prozesuan eta sei hilabetetan zehar parte-hartzaileek formakuntza-saiolak eta aholkularitza jasoko dute, hainbat baliabide eskura edukitzeaz gain (lan-espazioak, finantziazio aukerak...).



Eibarko Azitaingo poligonoan dago Debegesa.

Debabarreko ekosistema eta azpiegiturak

‘Make in!’ programan gertatzen den bezala, Debabarreneko ekosistemak berebiziko garrantzia du ekiteko orduan. “Enpresak, formakuntza-zentroak, teknologia-zentroak, inkubategiak, azpiegiturak... ditugu eskualdean”, diosku Iturzaetak.

Debabarrean lau azpiegitura berezi daude ekintzaileentzat: Izarra Centre Ermuan, Eibargunea enpresa-inkubagailua, Debegesaren eraikinean zabaldutako berri duten ekintzaileentzako gune berria eta Teknikerreko inkubategia. Azken hori Teknikerren egoitzan dago eta BIC Gipuzkoa enpresa-zentro berritzaileak kudeatzen du.

Eibargunean 15 metro karratuko zapi modulu, bi bilera-gela eta office bat aurkitu ditzakegu. Azitain industrialdean dago eta, lanerako espazioa emateaz gain, Debegesak zenbait zerbitzu eskaintzen die bertan dauden enpresei.

Informazio gehiago 943 82 01 10 telefonoan edo ekintzaile@debegesa.eus helbidean

Debegesa ondoko ekintzaileentzako gune berrian, ostera, bost bulego, bilera-gela bat, office bat eta gune irekia daude. “Berrikuntza eta teknologia arloak lantzen dituzten proiektuak erakarri nahi ditugu”, esan digu Iturzaetak. Gainera, gune irekia eta bilera gela erabilgarri daude eskualdeko enpresa eta eragileentzat. Teknikerren, ostera, 35 metro karratuko sei gune daude ekintzaileen eskura.



Debegesako Ane Iturzaeta.

10 urte ekintzaileak bultzatzen

IZARRA CENTRE

Izarra Centre ekimena 2012an abiatu zen, Ermuko Udalak sustatuta. Bere helburuen artean daude EAEko industria indartzen laguntzea, berrikuntza bultzatzea, espiritu ekintzailea sustatzea eta lurraldeko talentua lurraldean mantentzea. Beti ere, hazkunde iraunkorraren bermatzaile gisa, bai ingurumenaren zein gizartearen eta ekonomiaren ikuspegitik.

Ekintzailtza-garairako espazioak eta coworking aretoak ditu, hala nola inkubazio, finkapen eta azelerazioarako guneak. Halaber, prozesu osoa bultzatzen laguntzeko mentoring programa espezializatua du martxan, eta lege eta lan arloetako aholkularitza zerbitzuak. Bestalde, partaidetza-maileguak eskaintzen ditu ekintzailtza-proiektuak finantzatzeko.

Berrogei enpresatik gora

Izarra Centre berrikuntza-ekosistema gisa eratzen da, non enpresa finkatuek, pertsona ekintzaileek, unibertsitateek eta ezagutza-zentroek espazioa eta ikasketak partekatzen duten, garapen iraunkorraren erronka garrantzitsuei



Izarra Centre.

erantzungo dien eraldaketa sozial eta ekonomiko baterako balioa sortuz.

Gaur egun, berrogei enpresatik gora daude kokatuta espazio honetan. Beraien

eskura jarritako zerbitzu eskaintza zabalak, kalitatezko espazioak zein bultzatutako sare eta lankidetzak proiektuak erabakigarriak izan dira aukeraketa honetan.

Zer eskaintzen dizue Izarra Centre ekosistemak?



ELON

ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

“Izarra Centre ekosistema funtsezkoa izan da ELONen biziraupenerako. Hasierakoak izan dira gure urterik ahulenak eta bertan izan dugu laguntza gehien. Izan ere, eskertzekoa da Ermuko Udalak emandako babesa. Azpimarratzekoak dira bertako instalazioak eta hauen kalitate maila. Gure kasuan kokapenak berak ere izan du zeresana aukeraketan: EAEko hiru hiriburuen erdian egoteak asko lagundu digu gure negozioa garatzeko orduan”.

Bai.k

BAI.K

TEKNOLOGIA

“Izarra Centre leku aproposa izan da Bai.k-ren garapenerako, ez bakarrik edozein enpresa-proiekturako azpiegitura eta baliabide enpresarial eta ekonomiko apartak izateagatik, baita hornitzaileei dagokienez gune estrategiko batean egoteagatik ere. Gaitasun teknikoei dagokienez, toki oso egokia da. Bertako azpiegiturak, eskaintzen dituen zerbitzuak eta hango langileen laguntza funtsezkoak dira izaera teknologikoko edozein enpresa-proiekturako”.

GAIA

CLUSTER ICTA

GAIA EUSKADIKO TEII INDUSTRIEN ELKARTEA

“Izarra Centre ideien eta negozioen garapenerako ekosistema aurreratua da. Ermuak duen estrategiak enpresen hazkundera, gazteen eta profesionalen garapena eta hiri erakargarri eta iraunkorrago bat ahalbidetzen du, eta esfortzu handia egiten ari da esparru horretan. Bertako enpresa sarearekin konpromiso handia erakusten du, baliabideak inbertitzen eta proiektu pilotuak bultzatzen. IoTBasque Izarra Lab living-lab horren adibide garbia da: gauzen Internet-aren alorrean garatutako laborategia, hain zuzen ere”.



IZARRA CENTRE

EKITEKO,
HAZTEKO
ETA LANKIDENTZAN
ARITZEKO ESPAZIOAK

Zer eskaintzen dugu?

Zuretzako leku bat dugu, kokapen egoki batean, guztiaren erdian.

Gertu eta ondo komunikatuta EAEko hiru hiriburuekin.



01. Ekin

Kontaiezaguzu, zer behar duzu? Zure negozioa garatzen jarraitzeko leku pribatu bat? Hazteko espazio gehiago? Izarra Centre da zure lekua. Denetarikoz gune egokiak ditugu. Zuntz ultra-zabaleko konexioa duen azpiegitura modernoa eta mentoring zerbitzua kontrastatua (eskarmentuduna).



Prestakuntza

Martxan jarri ahal izateko, enpresa-kudeaketarako prestakuntza jasoko duzu.



Aholkularitza

Zure enpresa-proiektua diseinatzen eta abiarazten lagunduko dizugu.



Mentoring

Programak espezialistarekin onenak dituzte, bide osoa beraien gidaritzapean egiteko.



Espazioak

Ekintzailtza-fase bakoitzerako espazioak: coworking-guneak eta bulego zabalak sendotzeko eta hazteko.



Networking

Enpresekin konektatzeko eta nazioarte mailan erreferentziazko sareak sortzeko ekitaldiak.



02. Berritu

Berrikuntza beharrezkoa da merkatu lehiakorretan bizirauteko. Berritzeak hazten eta edozein egoerataraz egokitzen laguntzen du, arrakasta izateko bemearekin. Arlo horretan lan egiten duten erakundeekin elkarlanean ari gara, eta zu ere horren parte izatea nahi dugu. Dibertsifikazioa eta lehiakortasuna sustatu nahi ditugu, erakundeen arteko lankidetzak publikoak eta pribatuak garatu, I+G+b eremu publikoan zein pribatuan sustatu, eta prestakuntza eta ekintzailtza bultzatu.




IoT Basque Izarra Lab



Grabitatea



Zuntz konexioa



03. Hazi

Hazi gurekin. Zure hedapen-beharretara egokitzen diren espazio modulagarriak eta aldakorak. Bilerak eta prestakuntza egiteko gela komunak. Hazteko erabakian laguntzeko laguntzak eta dirulaguntzak.



04. Lankidetzak

Aukera berriak bilatzen ditugu enpresei hazten laguntzeko, eta, horretarako, hainbat eragilerek batera egiten dugu lan. Enpresak gure proiektuen partaide egiten ditugu, lankidetzak sareak aprobetxatuz hazteko aukerak edukitzeko.

Ekintzaileen zerbitzura

DEBABARRENEKO IKASTETXE GEHIENETAN ABIAN DA URRATSBAT PROGRAMA

Hezkuntzaren esparruan, Debabarrenean bada ekintzailetza bultzatzeko, lantzeko eta ikasleei eta ikasle ohiei bide horretan laguntzeko programa nagusi bat, Lanbide Heziketa lantzen duten hezkuntza zentro gehienetan eskaintzen dena: Urratsbat.

Eskualdeko ikastetxeen artean, besteak beste, IES Uni Eibar-Ermuak, Elgoibarko Meka Lanbide Eskolak, Mutriku BHI Institutuak, Kardala LH II Akuakultura Eskolak eta Eibarko Armeria Eskolak txertatuta dute Urratsbat programa euren ikasketa-lerroetan.

Ikastetxeotan, azken 10-15 urteotan ari dira programa hori eskaintzen eta oro har, modu oso positiboan baloratzen dute, nahiz eta baduen zer hobetu ere, Eibarko Armeria eskolako Iñaki Etxeberria Urratsbateko arduradunak azpimarratu duen moduan.

"Nire ustez, erakunde gehiegi daude arlo berean sartuta, kasu honetan, ekintzailetzan: udalak, ikastetxeak, SPRI-BIC, Debegesa... Horrez aparte, finantzazio aldetik gabezia dagoela esango nuke; finantzazio hobea balu, Urratsbat programa asoz ere eraginkorragoa litzateke. Adibidez, zentzu horretan, Bizkaian Gipuzkoan baino baldintza hobekak eskaintzen ditu diputazioak, dirulaguntza handiagoak eta gehiago daude".

Aholkularitza, baliabideak...

Kritikak kritika, Armeria eskolako irakasleak bai uste du Urratsbat baliagarria eta lagungarria dela enpresa bat sortu nahi dutenendako, haren bitartez, aholkularitza integrala zein gutxieneko baliabideak jartzen baitituzte negozio ideia bat dutenen eskura, bulegoak zein ikas-

tetxeko ekipamenduak erabiltzeko aukera barne.

Programaren baliagarritasunaren erakusle da azken hamar urte pasatxoan Debabarreneko ikastetxeetatik eratorrita, hainbat enpresa berri sortu direla Urratsbat programa baliatuta.

Enpresa berriak

Datu batzuk aipatze aldera, Armeria Eskolan, 22 enpresa sortu dira Urratsbati esker. "Gaur egun, 22 horietatik 15 bizirik daude eta 55 lagun daude haietan lanean", jakinarazi du Etxeberriak. Izen batzuk ere aipatu ditu: "Estrulaser Tubo (Legazpin), hiru bazkiderekin hasi eta orain 18 langile ditu; Durangaldeako Seobide marketin agentzia, 12 langile dituena edo Eibarko Infosec informatikako enpresa, lau langile dituena. Azken

aurrez aurreko
ATE IREKIAK
MARTXOAK 29

GOI MAILAKO ZIKLOAK 18:30
ERDI MAILAKO ZIKLOAK 17:30

*info gehiago gure
webgune eta sare
sozialeetan*



943 20 32 44
eibar@armeriaeskola.eus
www.armeriaeskola.eus



"Etorrizun baten oraina"




ArmeriaEskola^x

hori izan zen Urratsbaten bitartez sortu zen lehena".

Eskualdeko bestelako ikastetxeetan ere eman ditu fruituak ekintzailtza programa horrek. Esaterako, azken hiru urteotan, Meka Lanbide Eskolan hamai-ka kontsulta izan dituzte eta horietatik hiru enpresa sortu dira. Uni Eibar-Ermuan, berriz, programa abian dutenetik, 17 enpresa sortu dira eta beste asko sortzeko aukerak aztertu dituzte eta Mutrikuko Institutuan autonomo modura sortu dituzte enpresa txikiak elektrizitate arloan.

Doako zerbitzua

Urratsbat programan parte hartzea doakoa da. Berau eskaintzen duten eskualdeko ikastetxeetako ikaslea edo ikasle ohia izatea da baldintza bakarra. "Adibidez, nahikoa da Armeria Eskolako ikastaro batean parte hartzea, hura bukatu ondoren edo bitartean, Urratsbat programa erabili ahal izateko", dio Etxeberriak.

Uni Eibar-Ermuako Urratsbateko arduradun Nekane Fernandez de Arroiabek ere hori berori azpimarratu du: "Urratsbatek aholkularitza integralko zerbitzua eskaintzen dio pertsona ekintzaileari bere enpresa abian jartzeko prozesuan. Adina ez da kontutan hartzen dugun irizpidea, ikastetxeko ikasle edo ikasle ohi izatea baino. Gure lehen helburua ekintzailtza ezagutzera ematea da. Gure ikasleek merkatuan aurkitu ditzaketen aukera ezberdinak identifika ditzaten, besteen kontura lan egin edo beraien enpresa sortzea".

Akonpainamendua

Mutrikuko Institutuko Urratsbateko arduradun Joseba Solabarrietak, bestalde, programak duen bidelagun izaera azpimarratu du: "Laguntza guztiak eskaintzen zaizkie, negozioa sortzerako orduan eta baita sortu ondoren ere, haiekin kontaktuan segitzen baitugu. Gainera, norberaren premiaren arabera antolatzen da guztia". Solabarrietak gaineratu duenez, nekeza da gazteengan ekintzailtza kultura bultzatzea, "denek nahi baitute funtzionario edo futbolari izan. Baina garrantzitsua da programa ezagutaraztea, burutik ken dezaten lanerako aukera bakarra dutela, besteendako lan egitea. Esplikatzeko zaie norberaren kontura lan egiteko aukera ere badagoela".

Meka Lanbide Eskolako Urratsbat programako arduradun Saioa Alberdik, berriz, ezinbestekoa ikusten du ikastetxeetan zerbitzu hori izatea: "Ikastetxean lanbide bat ikasi eta gaitasun tekniko eta "soft skills" direlakoetan (zeharkako gaitasunak) trebatu den ikasle orok, buruan negozio ideia bat izanez gero,



Iñaki Etxeberria Armeria Eskolako UrratsBat programako arduraduna bulegoan.

berau ekonomikoki bideragarria den edo ez aztertzeko akonpainamendu zerbitzu bat eskaintzea ezinbestekoa ikusten dugu. Bailarako sare-enpresariala ereitea eta sustatzea da Meka Lanbide Eskolako apustuetako bat".

Jarrera ekintzailea

Dena den, Urratsbat ez dago bakarrik bideratuta enpresak sortzera. Programa horren ardura duten eskualdeko irakasleek azpimarratu dute programak berak eskaintzen duen jakintzak ere baduela garrantzia.

Mekako Saioa Alberdik jarrera ekintzailea izatearen garrantzia azpimarratu du: "Ezinbestekoa iruditzen zaigu ikastetxetik pasatzen den ikasle orok dohai hori garatzea. Horretarako, ekintzailtza landu eta lan aukera gisa aurkezteaz gain, jarrera ekintzailean eta pentsamendu sortzailean sensibilizatzen dira ikasleak. Sensibilizazio hori lan arlorako ezinbestekoa ikusten dugun arren, bizitza pertsonalerako ere oso garrantzitsua iruditzen zaigu. Meka Lanbide Eskolatik pasatzen diren ikasle orori Urratsbat Programa aurkeztu eta azaltzen zaio, eta, honez gain, ekintzaile ezberdinak ikastetxera gonbidatzen ditugu beraien ibilbidea gurekin partekatzera. Oso esperientzia erreal eta politik izaten ohi dira, non ikasleak ekin-

tzailtza prozesu erreal batetako oinaze eta garaipenak zuzenean entzuteko eta bizitzeko aukera paregabea duelarik".

Idea bera azpimarratu du Mutrikuko BHI Institutuko Solabarrietak: "Ekintzailtza lantzen dugu ez bakarrik enpresa sortzeko, baizik eta eguneroko bizitzan norberak izateko inizatiba eta bultzada, enpresa izaten bukatzen ez bada ere. Ikasketa prozesu bat delako. Eta ikasten dute prozedimendu eta kultura enpresariala eta ekintzailtza kultura. Hori interesgarria da euren bizitzarako".

Gutxieneko jakintza

Hori bai, gomendio modura, Armeria Eskolako Iñaki Etxeberriak azpimarratu du enpresa bat sortu aurretik beharrezkoa dela gutxieneko esperientzia izatea garatu nahi den alor horretan: "Lehenengo ikasi egin behar da, gero lanera irten, zer dagoen ikusi eta ikasi eta ondoren etorri. Enpresa bat muntatzeko behar da jakin alor horretan zeintzuk diren bezeroak, beharrak eta abar. Irauten duten ekintzaileen ezaugarri bat da ez direla zerotik hasi eta teknikoki bazutela gutxieneko jakintza. Diru poltsatxo bat ere beharrezkoa da, inbertsioa egin behar izaten delako eta beste ezaugarri bat da gustuko zerbait egitea, horrek balio erantsia dauka".

Bat egiten du ideia horrekin Mekako ordezkariak ere. "Ekintzaile on batek, batez ere, ezaugarri eta baldintza zehatz batzuk izatea eskatzen ditu (arriskuak bereganatzeko ausardia, arazoan eabazpenareko trebezia, komunikatzeko erraztasuna, ...), ez adin zehatz bat. Hala ere, ez da ohikoena 18 urtetik beherakoa den ikasle bat ekintzailtza ideia batekin bertaratzea".

"Laguntza guztiak eskaintzen zaizkie, negozioa sortzerako orduan eta baita sortu ondoren ere"

Enpresa bat sortzeko bidelagun

URRATSBAT PROGRAMA

UNI Eibar-Ermua zentroan Lanbide Heziketako hainbat ziklo eskaintzen dituzte. Informatikarekin, merkataritzarekin, administrazioarekin eta gorputz eta kirol jarduerekin zerikusia duten zikloak dira eta ikasleak lanerako prestatzen laguntzen dituzte. Lan mundura eman beharreko jauzia, ostera, ez da beti erraza izaten eta, aukera faltan, ikasle batzuek euren kabuz ekitea erabakitzen dute.

Ekintzaileek euren asmoak errealitate bihurtu ahal izateko jarraitu behar duten bidea bihurgunez josita dago. Aurrean jartzen zaizkien oztopoak gainditu ahal izateko, Urratsbat programa UNI Eibar-Ermua ikastetxean ikasten diharduten edo ikasi dutenen bidelaguna da. Proiektua 2006/2007 ikasturtean jarri zuten martxan UNI Eibar-Ermuan

Carmelo Oyarzabalaren ekimenez eta harrezkero ekintzaileek 17 enpresa sortu dituzte.

Baliabideak eta sarea

Idea on bat edukitzeaz gain, ekintzaileek zenbait baliabide behar dituzte euren proiektuak garatu ahal izateko. Normala denez, gehienek zerotik ekiten dute, eta, beharrak asetu ahal izateko, Urratsbat programan sartzan direnek UNI Eibar-Ermuako instalazioak eta ekipamenduak erabiltzeko aukera izaten dute.

Ekintzaileek, gainera, une bakoitzean behar duten aholkularitza jasotzen dute bere ibilbidearen lehen urtean. “Horrela, lan-munduan sartzera animatzen dira, beren negozio-unitatea sortuz”, diote UNI Eibar-Ermuakoek.

Urratsbat programa Hego Euskal Herriko hainbat zentrotan eskaintzen dute eta EAEn 321 enpresa sortu dira orain arte. Horrela, bertan parte hartzen duten Lanbide Heziketako zentroek eta sortutako enpresek Urratsbat sarea osatzen dute, urratsbatsarea.eus webgunean ikusi daitekeen bezala. Euskadiko ekintzaileentzako erreferentzia bihurtzea da sarearen erronka. Horretarako, bi helburu nagusi ditu: enpresen emaitzen kontua hobetzea eta Urratsbat programaren espirituari eustea.

Programaren inguruan informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, info@urratsbatsarea.eus helbidera idatzi daiteke edo, bestela, UNI Eibar-Ermuan programaren arduraduna den Nekane Arroiaberekin harremanetan jarri (943 899 211 - urratsbat@uni.eus).

IZAN EKINTZAILE!!

**UNI
EIBAR
ERMUA**

Otaola Hiribidea, 29,
20600 Eibar, Gipuzkoa
943 89 92 11
idazkaritza@uni.eus
www.uni.eus | @uni.eus

M	<input type="checkbox"/>	MERKATARITZA JARDUERAK
M	<input type="checkbox"/>	NAZIOARTEKO MERKATARITZA
M	<input type="checkbox"/>	GARRAIO ETA LOGISTIKA
▲	<input type="checkbox"/>	ADMINISTRAZIO KUDEAKETA
▲	<input type="checkbox"/>	ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
		+ ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK ESKAINTZA PARTZIALA ARRATSALDEZ
F	<input type="checkbox"/>	EGOKITZAPEN FISIKOA
F	<input type="checkbox"/>	GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA
I	<input type="checkbox"/>	MIKROINFORMATIKA SISTEMAK ETA SAREAK
I	<input type="checkbox"/>	PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
I	<input type="checkbox"/>	SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
I	<input type="checkbox"/>	WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
I	<input type="checkbox"/>	ZIBERSEGURTASUNA INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIEN INGURUNEETAN

ERDI MAILAKO TEKNIKARIA

GOI MAILAKO TEKNIKARIA

ESPEZIALIZAZIOA

"Urratsbaten papera berebizikoa izan da ekiteko orduan"

OIHANE GARITAGOITIA ETA SONIA AMIAMA SUSTRAI

Eibarren dagoen Sustrai ongizate zentroak Urratsbat programaren laguntza jaso zuen proiektua aurrera ateratzeko. "Oso-tasunean pertsona bat lantzeko lekua da Sustrai", Oihanek eta Soniak esan digutenaren arabera. Hau da, gorputza barrutik eta kanpotik zaintzeko aukera ematen dute. Horrela, nutrizio-hezkuntza, kobido masajea eta psikoterapia zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Gorputza barrutik eta kanpotik zaintzeko zerbitzuak eskaintzen dituzue. Adin guztietako pertsoneri zuzenduta daude?

SONIA: Bai eta horrez gain, psikologia arloan gero eta eskaera gehiago ari gara ikusten, batez ere soziohezkuntzaren arloan, eta zerbitzu hau ematen hasiko gara seguruenik.

OIHANE: Familiarekin interbentzioak egin hasi gara. Psikologiako kasu asko ditugu: umeak, familiak, nerabeak, banaketa-prozesuak...

SONIA: Bestetik, hemen erabiltzen ditugun produktuak saldu ere egiten ditugu. Osasuna zaintzeko produktuak dira, toxikorik gabekoak eta biodegradagarriak. Zuk erabiltzen duzuna on bada, naturarentzat ona da, eta alde-rantziz.

Nola sortu zen Sustrai martxan jartzeko ideia?

SONIA: Oihane ezagutu baino lehen, buruan bueltaka nuen horrelako proiektu bat sortzeko ideia eta, justu, Oihane agertu zen. Bera psikologoa da eta horrek proiektua biribiltzen zuen.

OIHANE: Soniak, ostera, Gizarte Langile bezala egin izan du lan, gorputza kanpotik zaintzeko tratamendu naturalak ematen ditu eta, horrela, bakoitzak bere ekarpenak eginez, zerbitzu integrala eskaintzeko aukera ikusi genuen.

Idea edukitzetik proiektua martxan jarri arte, nolako pausoak eman behar izan dituzue?

SONIA: Bide horretan pixka bat bakarrik sentitu gara. Ni eszedentzian nengoenez



Oihane eta Sonia. SUSTRAI

eta Oihane beste lan batetan, ez genuen dirulaguntzarik jasotzeko aukerarik izan. OIHANE: Ekonomikoki laguntza gutxi jaso dugu.

Egoera horretan, nola egin ahal izan duzue aurrera?

SONIA: Urratsbaten papera berebizikoa izan da eta, noski, baita jaso dugun aholkularitza zerbitzua ere.

OIHANE: Nahiz eta langabezian ez egon, ekintzaileentzako formakuntza jasotzeko aukera izan dut Urratsbati esker: proiektu bat nondik hasten den ikusi, proiektu ekonomikoa nola egin... Egiten ari ginena ondo zegoen ala ez jakiteko balio izan digu.

Nola egin zenuten bat Urratsbat programarekin?

OIHANE: UNIK bertako ikasleen eta ikasle ohien eskura jartzen duen programa da Urratsbat. Nik batxilergoa egin nuen han eta horregatik izan dut programan parte hartzeko aukera. Edozein laguntza ondo zetorkigun sasoi hartan.

Zein pauso jarraitu dituzue Urratsbaten barruan?

OIHANE: Hasieran, proiektua zein egoeratan zegoen aztertu zuten eta, horren arabera, bidea egiten hasi ginen, gure beharretara egokituz. Gainera, Urratsbategiaren ekintzaileentzako plataforma bat du eta saretzeko balio izan zigun. UNIKo koordinatzailearekin etengabe egon gara harremanetan eta gure proiektuarentzat lagungarriak izan daitezkeen gauzen berri eman digu: dirulaguntzak, formakuntza, kanpo-harremanak, hedapena... **Zein izan da bidean aurkitu duzun zailtasunik handiena?**

SONIA: Bezero berriak sortzea. Horretarako, ahoz aho eta sare sozialen (Google, Instagram...) bitartez eman dugu gure proiektuaren berri.

OIHANE: Hala ere, zaila da zentroan egin beharreko lana egiteaz gain sare sozialak kudeatzea, denbora behar da eta lanketa egokia eskatzen du. Ahoz ahokoak ondo funtzionatu digu.

Orain dela urtebete jarri zenuten martxan Sustrai. Zer sentitu zenuten?

OIHANE: Oraindik bertigo pixka bat dugula esango nuke. Hasieran proiektua modu batean definitu arren, beti gabil-tza hobetzeko asmoz. Beraz, erabakiak hartzeko orduan beti dugu zalantza hau: Ondo egiten ari gara, ala ez?

SONIA: Inoiz ezin zara lasaitu, beti egon behar zara hurrengo pausoa pentsatzen. Adibidez, aipatutako soziohezkuntza proiektua martxan jartzeko, lan asko egin dugu aurretik.

OIHANE: Ideia berriak eduki arren, gure esentzia ez galtzen saiatzen gara. Beraz, behar berriei egokitzeko gara gure oinarriak galdu barik.

Nolakoa izan da Sustrairen hasierako urtea?

SONIA: Orain ari gara ikusten urtebete-lanaren fruitua. Hasieratik esan zitugun urtebete inguru itxaron beharko genuela lehen bezeroak egiteko eta horrela izan da. Aurrera egiteko gogo askorekin gaude.

Urratsbat bidelagun duzue oraindik?

OIHANE: Eurekin harremanetan jarraitzen dugu. Guretzat probetxugarriak izan daitezkeen gauzen berri ematen jarraitzen dute eta eskertzen da. Laguntza hori eduki barik zaila da gauza batzuen berri izatea.

"Hasieran, proiektua zein egoeratan zegoen aztertu zuten eta, horren arabera, bidea egiten hasi ginen, gure beharretara egokituz"

"Gure helburuetako bat ekintzaile gehiago gerturatzea da, eta horretan dihardugu"

LEIRE BERASALUZE E KINGUNE ELKARTEKO PRESIDENTEA



Leire Berasaluze.

Hainbat jardueratako 32 ekintzailek (Arrasaten dago bat eta Debabarrenean gainontzekoak) osatzen duten Ekingune elkarteak 10. urtemuga du aurten. Iaztik lehendakari karguan diharduen Leire Berasaluze Amuategi eibartarrak eman digu elkartearen jardunaren berri.

Ekintzaileen arteko lankidetzeta eta sustapenerako elkartea da zuena. Nola egiten duzue lan lerro nagusi horietan?

Elkartekide guztiok gara ekintzaile; batzuk beharrak bultzatuta, beste batzuk beren ametsetako ideia martxan jarri nahiari jarraiki. Kideetako batzuk urte nahikotxo daramatzagu ekin genionetik, edo ekiten hasi ginenetik, eta gure betebeharra hasiberriei laguntzea da, haien lana sustatzea.

Askotan elkarrekin egiten dugu lan, proiektu beraren atal guztiak kideen artean estaliz. Gainera, gure bezero batek elkartekide baten zerbitzuen beharra izanez gero, kontaktuan jartzen ditugu.

Halaber, guretzat oso garrantzitsua da networking-ak egitea, beste elkarte batzuekin, edo nahi duen autonomo edo enpresari ateak ireki eta norbere produktua edo zerbitzua ezagutzera eman eta sinergiak lortzea. Berriz ere hasi gara halako bilerak egiten eta espero dugu pandemia aurreko mailara itzultzea.

Zer baliabide eskaintzen diezue ekintzaileei?

Ekitea polita izan daiteke, baina baita nekeza ere. Gure xedea ekiten duzunean erorikoan aurkako "sare" hori ehuntzen laguntzea da. Baliteke zure ideia ona izatea, baina beste hainbat gauza behar izaten dira. Laguntzak egoten dira ekiteko, baina behin enpresa martxan, nola lortu lehen bezeroa, nola egin aurre ziurgabetasunari, nola saldu? "Soft skills" deritzen gaitasunak ere faltan izaten ditugu askotan. Horietan treba-

tzeko baliabideak ematen ditugu, eta horiekin lotutako ekitaldiak antolatzen ditugu.

Askotariko ekimenak egiten ditu Ekingunek. Zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Batetik, AurreraEkin proiektua, ekin aurretik, gure burua aztertu eta ekitea egokia den ala ez, edo zein gaitasun hobetu beharko ditugun eta horiek nola landu hausnartzen laguntzen duena. Bestetik, OnEkin negozio-ideien lehia-keta dugu; gaur egun enpresa sendoak diren askok irabazi dute OnEkin saria: Arkigreen, Fixme, Kaxa, Eibarrooms, ScrapAd...

Horiez gain, Hamarretakoak Ekingunerekin egiten ditugu hilero, ekintzaile gisa interesatzen zaizkigun gaiei buruzko hitzaldi baten ondoren, hamarretakoan networking-a eginez. Eta Marketing Day eguna, emakume ekintzaileei zuzendutako Womenekin, Fuck-up Day delakoa (porrotak beste modu batean ikusteko) edo GabonEkin eguna (gabon bazkariarekin) ere baditugu. Adituak eta esperientziadunak gonbidatzen ditugu horietara.

Ekintzaile gisa, zein dira aurre egin behar izaten zaien zailtasun nagusiak?

Betidanik izan da arazoa lehenengo bezeroak lortzea; esperientziarik ez baduzu, bezerorik izan ez baduzu, zaila izaten da jendeak zugar sinestea. Enpresa handien ondoan, gehienbat. Gaitasun edo trebezia batzuk ere garatu

"Ekitea polita izan daiteke, baina baita nekeza ere. Gure xedea bide horretan laguntzea da"

behar izaten dira: likidezia falta, nola aurkeztu zure burua besteen aurrean, nola saldu zure produktua... zalantzas betetako bidea da.

Eta onurak edo abantailak?

Uste dut bakoitzak bere esperientziaren arabera erantzungo diola galdera honi. Nire kasuan, aukera eman dit proiektu desberdinak aurrera ateratzeko eta nolabaiteko malgutasuna izateko nire bizitzan; lorpenak ere gehiago ospatzen dituzu. Hogeit bat urte daramatzat itzul-pengintzaren munduan; zazpi urte dira Sare Translations sortu nuela, eta aurten Sare Contents eratu dugu, itzultzeaz gain edukiak sortzeko.

Bizimodu bat da ekintzaile izatea, abentura. Nik ez dut nire burua ikusten zortzi orduz makina baten aurrean "jo eta su" egunez egun. Erronkak behar ditut.

Nola dago ekintzailtza eskualdean? Osasuntsu dago sektorea?

Ez da une ona, baina besteentzat lanean dihardutenentzat ere ez, ezta? Zalantzas beteta dugu etorkizuna, denok. Gure helburuetako bat ekintzaile gehiago gerturatzea da, eta horretan dihardugu.

Hamar urte betetzen ditu Ekingunek. Nola irudikatzen duzue elkartea hemendik hamar urtera?

Ekintzaile guztiok bezala, aurrera ateratzeko borrokan jarraituko dugu. Gu geu ekintzaileak gara eta denon onerako da eskualdearen enpresa-egoera eta, oro har, egoera ekonomikoa sendoa izatea. Beraz, beren enpresa edo proiektua martxan jarri dutenei edo jartzera doazenei eskua luzatu nahi diegu elkarrekin urrunago iristen laguntzeko.

Urteurrena ospatzeko ekimen berezirik egingo duzue?

Bai, urte berezia izango da. OnEkin sariak bereziak izango dira, bazkideentzat ere ekintza bereziren bat prestatuko dugu... Gonbidatuta zaudete.

Emakumeak lan munduan barneratzeko

EMEKIN EGITASMOA

2007an jarri zuten martxan Emekin programa Foru Aldundiak, Aspegi elkarteak (Emakume Profesional eta Enpresariari Gipuzkoako Elkarteak) eta Laboral Kutxak, Europako Gizarte Funtsak % 50ean finantzatuta. 15 urte beteko ditu aurten programa honek. Programa honen atzean hainbat aholkulari ere badaude, emakumeei lan mundurako ibilbidean laguntzeko, eta horietako bat da Eibar-ko Somos Asesores enpresa. Bertako Jaione Moreno hasiera-hasieratik inplikatu zen Emekin programan, eta berak eman dizkigu egitasmoari buruzko azalpenak.

Emakumeak gero eta gehiago barneratzen dira lan munduan, baina hala ere, gizonezkoen aldean asko dira oraindik etxean geratzen diren emakumeak. Kontziliazioa eta zaintza emakumeen ardurak dira gaur-gaurkoz, eta egoera hori apur bat irauli nahian dabilta erakundeak. 2007an, esaterako, Emekin programa jarri zuten martxan. Negozio ideia bat duten emakumeei zuzendutako programa da, eta, bere helburua da Gipuzkoan enplegua sortzea, emakumeek martxan jarritako enpresa proiektuak bultzatuz. Honenbestez, enpresa proiektu bat duten eta hura abiarazi nahi duten emakume guztiak izan daitezke programaren onuradun. 35 urtetik gorako emakumeei zerbitzua emateko asmoz jaio zen Emekin, eragileek ikusi zutelako garai hartan adin horretatik gorako emakume asko zeudela etxean, eta lan munduan eskulana behar zela. Behar horri erantzuteko, emakume horiek etxetik atera eta lan mundura erakarri behar zirela ikusi zuten. 2007tik 2013ra arteko egitasmoa zen hasieran, baina emaitza "onak" ikusita, egitasmoarekin jarraitzea erabaki zuten. Gaur egun martxan dago oraindik, eta gainera, emakume ekintzaile guztiak hartzen ditu orain, adina kontuan hartu gabe.

1.189 lanpostu berri

Jaione Moreno Somos Asesores aholkularitzako kidea da, eta sorreratik egon da Emekin egitasmoari oso lotuta. Hasierako etapa hartan hogeitaholulari homologatu zeuden programa honi lotuta, baina gaur egun gehiago dira. Morenok hainbat prestakuntza saio egin



zitu emakumeei lagundu ahal izateko, eta azaldu duenez, urte hauetan emakume askori eman die zerbitzua. Enpresa "asko" jarri dituzte martxan Debabarrenean Emekin programari esker: Ile-apaindegia, online bidezko salmenta plataformak, tabernak, okindegi-gozotegiak, edergintza zentroak... Lehen hamarkadako (2007-2017) datuen arabera 1.591 emakume prestatu dituzte Emekin programaren barruan ekintzailetzarako trebetasunetan; 849 enpresa berri abiatu dituzte, eta 1.189 lanpostu berri sortu dira. Hamar urte horietan sortutako enpresen artetik % 55,59 zerbitzuen sektorean ari dira, % 35,55 merkataritzan, eta % 8,86 ostalaritzan. Enpresa berrien kokalekuari begiratuta, emakumezko ekintzaile gehien Donostialdean daude (% 38,08). Debabarrenean, enpresen % 4 sortu dira, Foru Aldundiak emandako datuen arabera. Jaione Morenori egitasmo "ona" iruditzen zaio Emekin.

50 orduko aholkularitza

Emekinen barruan hiru aholkularitza zerbitzu eskaintzen dira: hasierako orientazioa, erabakitze laguntza eta jarraipena. Lehenengo fasean 25 orduko aholkularitza zerbitzua eskaintzen dute, eta horren barruan, bideragarritasun plana egiten da: "Bideragarritasun plana egitea ez da erraza izaten, gehienetan salmenta kopurua estimazio bat izaten delako, eta plan hori ondo egitea oso garrantzitsua da". Bideragarritasun planean kostu eta sarrerak kalkulatu behar dira:

"Hamar urtean 849 enpresa berri jarri dituzte martxan Gipuzkoan Emekin egitasmoari esker"

begiratu behar da inguruan dagoen konpetentzia, baita ere egunero enpresa horren pertsiana altxatzeak duen kostua... "Bideragarritasun plan on bat da enpresa berri baten oinarria". Hasierako fase horren ondoren, eta bideragarritasun plana eginda dagoenean, beste 25 orduko aholkularitza zerbitzua eskaintzen zaio ekintzaileari, burokrazia fiskalarekin laguntzeko. "25 ordu ez da asko, baina uste baino gehiagorako ematen du". Azkenik, enpresa horiei jarraipena ere egiten zaie.

Ekintzailea izatea beti da "interesgarria", baina gaur egun egoera ez da erraza: "Garai batean enpresa bat martxan jarri eta ia beti ondo joaten zen, baina gaur egun ez da horrela izaten". Hala ere, emakumeentzako bereziki ekintzaile izatea eta negozio propioa martxan jartzea irtenbide ona dela uste du Morenok. Ekintzaile izateak ideia bat eduki eta hori gauzatzea dakar berarekin, eta horrek baditu bere arriskuak ere, baina gehiago dira onurak, eragozpenak baino: "Ekintzaile izateak esan nahi du ideia horrekin pentsatzen egotea etengabe, baita lan jarduna amaitu ostean ere". Zailtasun eta arrisku guztiak kontuan hartuta ere, ekintzaile izatea lan munduan barneratzeko aukera interesgarria da.

Kontaktua

Emakumea bazara eta Gipuzkoan zure enpresa ideia martxan jarri nahi baduzu, hona hemen Emekin egitasmoarekin harremanetan jartzeko bideak:

- emekin@gipuzkoa.eus
- Doako telefonoa: 900 701 132



Nagore Martin Landaola sariarekin.

"Ni pozik nago baina oinak lurrean izan behar dira eta egoera ez da batere erraza"

NAGORE MARTIN LEHEN SEKTOREKO EKINTZAILEA

V. Landaola Sarien baitan, aurten, Emakumeak Landa Eremuan saria Nagore Martini eman diote. Ahuntzaina da Martin eta haien esnearekin Egotzako gazta ekoizten du, Soraluzen. Kaletik landa eremura joan den emakumezko ekintzailea da Nagore Martin.

Pozik sariarekin?

Bai. Oso pozik.

Zu saridun aukeratzeko baloratu dute baserriarekin loturarik izan ez arren, kemena izan zenuela hirigunetik baserrira joan eta abeltzaintza eta gaztagintza ogibide bihurtzeko. Zure ustez kemen handia behar da?

Bai. Gauza askorekin kezka handia nuen: jakitea ea produktua salduko duzun, zelako inbertsiotan sartuko zaren... Baina askotan, hobeto da ez pentsatzea, bestela ez duzulako aurrera egingo.

Zelan erabaki zenuen aurrera egitea? Banekien hau nahi nuela, oso gustuko dut bizimodu mota hau. Bizitzako gau-

za guztiak moduan, argi izan behar da, baina argi baldin baduzu, pausoa eman egin behar da.

Izan zenuen aholkularitzaren bat?

Ez. Nik nire kabuz egin nuen dena, Onarrerekin (senarra) batera.

Eta bestelako laguntzaren bat izan zenuen?

Artzain Eskolan lagundu zidaten. Umea motxilan hartu eta hara joan nintzen nire ideiarekin. Han esan zidaten oso argi nuela zer nahi nuen eta Batisekin hasi nintzen bideragarritasuna aztertzen.

"Gauza askorekin kezka handia nuen, baina askotan hobeto da ez pentsatzea, bestela ez duzulako aurrera egingo"

"Negozio motaren arabera, errazagoa edo zailagoa da ekintzaile izatea; orain egoera zaila bizi dugu"

Zer esango zenieke ekintzaile izatea burutik pasatu baina pausoa ematera ausartzen ez diren horiei?

Egia esan, orain urte batzuk esango niekeen nahi dutena egiteko eta aurrera jarraitzeko. Baina egia da bizi garen gizarte honetan zaila dagoela egoera. Beste balore mota eta eros ohitura batzuk daude. Negozio motaren arabera, errazagoa edo zailagoa izan daiteke.

Erosoagoa da beste norbaitendako lan egitea?

Gaur egun badirudi baietz, baina ez nik hori sinisten dudalako baizik eta jasan behar dugun burokraziak eta agintariak oso konplikatuak egiten dutelako ekintzaileon jarduna. Niri berdin zait 16 ordu lan egin, txarren burokrazia kontuak daramatzat. Benetan gustuko dut egiten dudana baina penagarria da horren informazio gutxirekin kudeatzea nekazaritza mundua eta gauzak erabakitzea gurekin batzarrak egin barik.

Hala ere, erabakia hartu zenuenetik 9 urte pasata, esango nuke ez zarela damutzen batere...

Ez. Nire familia, seme-alabak nik haztea eta haiei erakustea eguzkiarekiko, naturarekiko, lurraiekiko eta animaliekiko maitasuna oso garrantzitsua iruditzen zait. Dena den, ni pozik nago baina oinak lurrean izan behar dira eta egoera ez da batere erraza. Ni pozik nago gauzak poliki-poliki egin ditudalako.

Gainera, emakumea zara; horrek ekarri ditu eragozpenik?

Ni hasi nintzenean, lehen ikasturtean dena ziren gizonak, ahuntzaingintzan. Baina nire kasuan ez naiz gutxiago sentitu eta ez naute okerrago tratatu. Gainera, gaur egun ni naiz elkarteiko presidente. Ahuntzai du izena elkarteak.

Besteik gaineratu nahi baduzu...

Nahiko nuke jendea kontzientziaztea lehen sektorearekin. Oso garrantzitsua da zer jaten dugun, jaten duguna gara.

"Hasi nintzenean denak ziren gizonak, baina ez naiz gutxiago sentitu eta ez naute okerrago tratatu"

HH5etik LH6ra artekoentzako eskaintza berezia antolatu dute Atxutxiamaiak eta Udal Ludotekak udaberriko oporraldirako

A txutxiamaiak eta Udal Ludotekak programazio berezia prestatu dute udaberriko oporraldirako, Udalarekin elkarlanean. HH5etik LH6ra arteko eskaintza izango da. HH5etik LH3ra artekoentzat eguneroko eskaintza egin dute, 9:00etatik 13:00etara. Bi txanda eskaini dituzte, lehenengoa apirilaren 11tik 13ra, eta bigarrenengoa, 19tik 23ra. Lehenengo txandak 36 euro balio ditu (bazkideek, 33) eta bigarrenak, 48 euro (bazkideek, 43). Bi txandak hartuta prezioa 76 eurokoa da (bazkideek, 68).

LH4tik LH6rakoentzat, bestalde, egonaldia prestatu dute. Lasturren izango da, apirilaren 21etik 22ra. 42 euroko prezioa dauka ekintza honek (bazkideek, 38).

Ludotekan, Elgoibarko Izarran edo www.elgoibarkoizarra.eus atarian eman daiteke izena, martxoaren 29a baino lehen. Aisialdi eskaintza honetan parte hartzeko dirulaguntzak eskainiko ditu Udalak. Horri buruzko informazioa Udaleko Gazteria Sailean eskuratu daiteke: 943 741 050 telefonora deituta edo gazteria@elgoibar.eus helbidera idatzita.



'Tempus' familia antzerkia taularatuko dute domekan, Herriko Antzokian



El que ma queda teatre antzerki konpainia kataluniarrak *Tempus* antzerkia ekarriko du domekan Elgoibarko Herriko Antzokira. *Tempusek* denborari buruz hitz egiten du: Klaus erlojugile zahar bat da, eta tailerra bisitatzeraz gonbidatuko ditu ikusleak. Erlojuz betetako lekua da bere tailerra, baina denbora gelditu egin dela dirudi. Klausek ez du hitz egiten, *tempus* bakarrik esaten du. Erlojuen istorioa kontatzen ahaleginduko da, hormako erloju zahar bat konpontzen duen bitartean. 16:30ean hasiko da ikuskizuna. Sarrerak www.herrikoantzokia.eus webgunean eskuratu daitezke, edo egunean bertan, Herriko Antzokiko txarteldegian. Ikuskizuna euskaraz izango da.

Aitor Etxeberria margolari mendaroarraren erakusketa, Donibane Lohitzunen

Aitor Etxeberria Mendaroko margolariaren erakusketa inauguratuko dute gaur, Donibane Lohitzunen. 2020ko Adour-Bidasoa margo lehiaketan epaimahaiaren sari berezia eskuratu zuen mendaroarrak *Morphosis* lanarekin, eta sari haren harira antolatu dute orain erakusketa. 60 margolarik baino gehiagok hartu zuten parte, eta sari nagusia Jean Claude Juliette *Juliet June* margolari donibandarrak eskuratu zuen, *Glamping* lanagatik. Bi artista hauen obra jarriko dute orain jendaurrean, Donibane Lohitzuneko Dukontenia etxean (12 Andre Ithurraldeko etorbidea), gaur 18:30ean.





▶ ASIER OLABARRIETA ETA JESUS JIMENEZ MUSIKARIAK

“Erraietatik sortu eta ilunetik argira doan bidaia, isla bakar batean hamaika egonezin islatzen dituen”. Hori da *Islabat* laburtzen duen ideia Asier Olabarrietarentzat (*Bilbo*, 1980). *Disko-liburuxka* kaleratu du eta zuzeneko emanaldiak hasi da orain. Zuzenekoetan lau lagun arituko dira, tartean Jesus Jimenez (*Elgoibar*, 1976). Kultur Etxeko sotoan emango dute kontzertua domekan, martxoaren 27an, 19:00etan.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

“Oinarria rock iluna da, baina asko jolasten dugu ahots eta koruekin”

ASIER OLABARRIETA

♦ Erraietatik datorren proiektua da *Islabat*, baina zer eta nor ditu erraietan egitasmoak?

Asier Olabarrieta: Esperientzia pertsonal batean oinarritutako proiektua da. Egoera txar bat pasatu nuen nire bizitzako momentu batean eta kulturalki ez gaude ohituta horrelakoak onartzera. Bizi izan nituen gauzek sortutako sentimenduak urteetan zehar sortutako ideiekin elkartu nituen. Zirriborro asko dauzkate eta horrela hasi nintzen sortzen. Iluntasunetik argirako prozesua izan da. Momentu txar bat bizi eta onartu ondoren gauzak beste era batera ikusten ditut. Musikaria izanik oso argi neukan abesti batzuk ondo grabatu nahi nituela. Hasieran ez nuen abestuko nuenik uste, baina gero dena egin nuen, nire egoera defendatzeko. Hitzak nireak ez badira ere, nire ideiak islatzen dituzte. Diskoa entzun ezezik irakurri ere egin behar da, oso disko musikal-poetikoa baita. *Islabat* hitz jokoa diskoaren izaerarekin bat dator. Nire barrua islatzen du.

♦ *Disko-liburuxka* kaleratu duzu eta orain zuzenekoekin hasi zarete, ezta?

A.O.: Grabaketa prozesua neuk bakarrik egin nuen ia oso-osoa eta ez nuen pentsatu proiektua zuzenekora eramaterik, ez nuelako nahi jende asko nahasterik. Baina, gero, lagunekin probatu nahi izan nuen eta proposamena egin nien Jesus Jimenez, Andoni Alonso eta Aitzol Mujika lagunei. Erronka bat zen beraiatzat ere.

Eta jadanik zuzeneko fasean gaude. Jesus asko inplikatu da eta nire ideia izatetik talde formatura pasatu gara zuzenekoetarako. Kolektiboago ikusten dut.

Jesus Jimenez: Aurrez elkarrekin entseatzeko genuen lokalean, beste proiektu batekin, ondo pasatzeko. Proiektu demokratikoagoa zen, sorkuntza prozesua denon artean egin genuen. EME eguneko kontzertuan jotzekoak ginen, baina bertan behera geratu zen. Gero, Asierrek, bere egitasmoa azaldu zigun eta baietza eman genion. Asier eta biok sariago geratu ahal izan ginen eta lana aurreratu, eta besteak gero batu ziren. Denbora asko laurok elkarrekin entseatu gabe geunden eta diskoan ez dugu parte hartu, baina orain gogoz ari gara zuzenekoetarako. Asierrek abesti batzuk grabatuta zituen eta beste batzuk gehitu ditu, eta guk argi geneukan hori jo behar genuela. Beste kantu batzuk irekiagoak ziren eta gure ukitua eman diegu.

A.O.: Bakarrik jardutetik taldean jardutera pasatu naiz eta oso ba-bestuta sentitzen naiz; gozamena da.

♦ Grabaketa gehiena zure esku egon da?

A.O.: Iruñeko estudioira joango nintzatekeen gitarra example eta beste gauza asko egitera, baina pandemia zela-eta ezin nintzen Elgoibartik mugitu eta gauza asko moldatu behar izan nituen. Nik grabatu dut, eta gero, Josu Ervitik egin ditu produktore lanak. Bateria-jotzaile profesionala da eta berak grabatu ditu bateria soi-



“Abesti batzuk irekiagoak ziren eta gure ukitua eman diegu zuzenekoetan”

nuak eta efektuak, eta beste lan asko egin ere bai. Hala ere, gorabeherak kontuan izanda emaitzarekin oso-oso pozik nago.

◆ Kolaboratzaileak izan dira, ezta?

A.O.: Grabazioa gehien bat etxean egin dut eta Elgoibarko lokaletan utzitako mikrofono on batekin, ordenagailu zahar batekin eta soinu txartel batekin. Bateria soinuak ere egiten nituen birtualki eta Josu Erviti bateria-jotzaileari bidali eta berak egokitzen zituen. Musika nik sortu dut, baina izan dira kolaboratzaileak, bai. Esaterako, emakumezko ahotsa Silvia Hernandezena da, Goizane Aizpuruak poesia irakurri zuen, Iban Urizarrekin sormen prozesua partekatatu nuen, eta Xabi Agirre, aspaldiko laguna, eta Jon Villate, lankidea, ere aritu ziren.

◆ ‘Islabat’ lana da hau, baina hona iritsi arte zein bidaia egin duzue musika arloan?

A.O.: Nire anaiak Inbigo taldean jotzen zuen eta anaia erreferentzia zen niretzat. Institutuan nobilela hainbat lagun elkartu ginen. 14 urte genituela, Santutxuko sei mendizale gazte hil ziren eta omenaldi erraldoi bat egin zitzaion; Su ta Garrek jo zuen, eta guk beraien aurretik, beraz, sekulakoa izan zen. Mendizaleei buruzko kantua ere sortu genuen eta oso hunkigarria izan zen; asko markatu ninduen. Hortik aurrera saiakerak egin ditut, besteak beste Cisma taldearekin, baina bi urte baino gehiago gutxi iraun dute. *Hiri asko bere baitan* proiektua ere egin nuen Unai Villena eta Aitor Gomezekin, eta Xabier Agirrerri ere lagundu nion beste proiektu batean, Jesusekin batera.

J.J.: Nire kasuan txaranga eta bandan jo izan dut eta orain taldean. Zuzenekoan diharduten beste hirurak aurrez aritu ziren hainbat proiektutan eta ni izan naiz oraingoan azkena sartzen.

◆ Lehen argitalpena al da hau?

A.O.: Nire bakarkako proiektu moduan bai. Askok landu dut, astiro eta lasai. Mami asko dauka, eta momentu batzuetan, bakarrik egin dudanez, prozesu gogorra izan da, baina era berean, oso aberasgarria. Beti izan dut buruan musika estilo honetako zerbaitek egitea eta azkenean saiatu naiz eta lortu dut. Abestiak, grabatu aurretik, birtualki sortuak zeuden, nik bakarrik ordenagailu aurrean, eta orain, sentsazioa beste bat da, oso berezia. Nik uste nuena baino emaitza hobea lortu dut. Josu Ervitiarekin oso ondo konpondu naiz, eta Silvia Hernandez elgoibartarrak ere asko lagundu dit ahotsak lantzen, abestiak entzun eta koroak sortzen. Bi horiek asko lagundu didate grabazio eta sorkuntza prozesuan. Disko honen aurretik Cismarekin grabatu genituen hiru abesti hamar urteren ostean, eta *Hiri asko bere baitan* proiektuan argazki eta musikaz osatutako piezak; guztira zortzi.

◆ Zein musika mota da Islabaten?

J.J.: Musika estiloa saillak ezina da.

A.O.: Nire ibilbide musikalaren laburpena da. Badira pare bat abesti lehen aldiz orain dela 20 urte sortu nituenak. Estiloa de-

finitzerakoan inork ez dit esan talde zehatzen baten traza duenik. Alde horretatik pozik nago, baina saltzeko zaila da. Oso nirea dela esango nuke; beraz, nahi izan dudana sortu dut.

J.J.: Zuzeneko kontzertuan ere denetarik entzun ahal izango da: gitarra, klarineta, teklatura, rocka...

A.O.: Oinarria rock iluna da, baina asko jolasten dugu ahots eta koruekin eta sintetizadoreak ere sartzen ditugu. Iluna da, baina tartean badira lelo melodikoak. Zuzenekoan abesti batetik bestera aldaketak daude, ez da monotonoa. Soinu ilun horren barruan atmosfera soinuak ere sartzen ditugu: itsasoa, euria... Diskoa entzuten hasita, ez dago kantua batetik bestera etenik, kontzeptuala delako; ilunetik argira

doa eta zuzenean ere saiitzen gara hori islatzen. Liburuxkako azalean, gainera, (K)ito hitza ageri da eta nik garai hartan bizi izandakoaren isla izan daiteke: itomen sentimendua, eta era berean, egoerarekin kito egiteko gogoia.

◆ Musika zuk egin eta grabatu duzu. Eta hitzak?

A.O.: Nire ideia zen aurreko taldeko sortzaileon artean egitea, baina ezin izan da. Banekien zer transmititu nahi nuen, eta poesiak erabili nituen melodia finkatzeko. Ondoren, oinarriak erakutsita laguntza eskatu nien hainbat laguni eta hitzak egin zituzten.

◆ Arrazoi berezirik izan duzue liburuxka eran kaleratzeko?

A.O.: *Hiri asko bere baitan* proiektuan liburuxka bat egin genuen eta formatua gustatu zitzaidan. Orain diskak ez dira saltzen eta biniloan sartzeak ez du zentzurik dena jarraian izanik. Baina grabazioa eginda, ilusioa egiten zidan fisikoki edukitzeak. Argazkiak ere propio egindakoak dira, koadro antzerakoak.

◆ Bilboko lehen kontzertua zer moduzkoa izan zen?

A.O.: Jendea gustura egon zen, baita gu ere. Nik uste dut jendeak gogo handia daukala edozein plan egiteko eta jende dexente elkartu zen: lagunak, familiakoak... Politia izan zen eta ondo sentitu ginen. Laurok batera egin genuen lehen kontzertua izan zen. Abestu gabe ere urte asko pasatu dira eta kantatu nuen berriz eta ondo atera zen.

J.J.: Ni aurrez beste modu batean aritutakoa naiz eta instrumentu batzuk berriak ziren, ez nituen ia ezagutu ere egiten.

◆ Elgoibarko emanaldirako zer espero duzue?

A.O.: Musikarekin pila bat gozatzen dut eta guk gozatuz publikoa gozarazi nahi dugu. Proiektuan berriak gara eta zuzenekoetan ere, baina gustura arituko garela uste dut eta musikan ezagutzen ez gaituen jendeari nolabaiteko jakin-mina sortuko zaiola, zerbaitek berezia izango baita.

J.J.: Jendeak ez du ohiko zerbaitek ikusiko. Gehienek bandan edo txaranga ezagutu naute, beraz, baliteke talde honetan ikusita harriztea. Lagunak eta familiakoak etortzea espero dut eta ondo pasatzea.

Denboraldi berrirako taldea aurkeztu du Elgoibarko Lagun Taldeak



Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak taldekideen aurkezpena egin zuen barikuan, Mintxetan duten egoitzan. Kadete eta jubenil mailako txirrindulariak hasita daude lehiatzen eta benjamin, alebin eta infantil mailako neska-mutilak ere bihar hasiko dira errepideko lasterketetan parte hartzen. Elgoibarko, Mendaroko eta Eibarko txirrindulari gazteek osatzen dute taldea.

Ander Gonzalez txirrindularia izan da azkarrena Mendaro Herria Sari Nagusian



Beasaingo Caja Rural Ikolan taldeko txirrindulariak nabarmendu ziren Mendaro Herria Sari Nagusia kadeteen txirrindularitza proban zapatuan. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatutako bigarren ekitaldia izan zen zapatuko eta Ander Gonzalez Goikoetxea Caja Rural Ikolaneko txirrindularia gailendu zen. 59 txirrindulariz osatutako tropela elkarrekin ailegatu zen helmugara, eta Gonzalez izan zen azkarrena espreinean. 58 minutu eta 22 segundoko denboran osatu zuen 43 kilometroko ibilbidea. Danena taldeko Eñaut Urcaregi sailkatu zen bigarren postuan eta Iruki Donostialdea taldeko Beñat Ilzarbe hirugarrengoa. Nesketan Izaro Etxarri andoaindarra izan zen azkarrena, eta Caja Rural Ikolan Beasain taldea gailendu zen taldekakoan. Guztira 68 txirrindularik bukatu zuten proba.

C.D. Elgoibarren ezohiko batzarra, apirilaren 11n

Club Deportivo Elgoibar kirol taldeko bazkideen ezohiko batzarra izango da apirilaren 11n, barikua, Kultur Etxeko hitzaldi gelan (19:00). Gai ordenean puntu bakarra izango dute: zuzendaritzak prestatutako oharraren irakurketa. Ahal den eta bazkide gehien batu nahi ditu klubak batzarrean, eta horregatik parte hartzeraz animatu dituzte.

Eskalada ikastaroak emango dituzte apiriletik aurrera

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eskalada ikastaroak antolatu ditu. Apiriletik aurrera emango dituzte ikastaroak, baina aurrez probatzeko egun bat ere antolatu dute. Martxoaren 29an, martitzena, izango da proba egun hori. 17:00etatik aurrera egingo dute Olaizagako rokodromoan. Ikastaroek dagoeneko, astean bi saio izango dira eta 16 urtetik beherako patronatuko bazkideek 33,25 euro (38,25 euro gainerakoek) ordaindu beharko dituzte parte hartzeko. 16 urtetik gorako bazkideentzako prezioa 37,25 eurokoa (48 euro gainerakoek) izango da. Martxoaren 28ra bitartean eman daiteke izena. Informazio osoagoa olaizagaharrera@hotmail.es helbide elektronikora idatzita.

Herri Kirol Eguna, Mendaron

Arno Guraso Elkarteak Herri Kirol eguna antolatu du biharko, Jon Larrañaga guraso eta kirolariaren eta Udalaren laguntzarekin. Ikastolako ikasle guztientzako ekintzak izango dira, eta Jon Larrañagaz gain, herri kirolen munduan zaildutako beste kirolari handi bik ere hartuko dute parte: Uxue Ansozregik eta Hodei Ezpeletak. Ansozregi, Ezpeleta eta Larrañagaren erakustaldiarekin hasiko dute ekitaldia. Frontoian izango dira ekintza guztiak, 10:30ean hasita, eta ondoren, parte-hartzaile guztientzako mokadutxo bat ere banatuko dute.

Lagunak taldeko palistek Udaberri txapelketa irabazi dute

Gipuzkoako Udaberri Txapelketa gomazko paletako binakako finala jokatu zuten barikuan, Astigarragan. Lagunak taldeko Kepa Arrizabalagak eta Mikel Arrietak Astigarragako Mundarro taldeko bikotea, Alain Agirrek eta Beñat Zubiarrainek osatutakoa, izan zuten aurkari, eta aurkarien ohiko pilotalekuan jokatu arren, elgoibartarrak gailendu ziren, 17 eta 25. Asier Gurrutxagak eta Mikel Arrietak hasi zuten txapelketa, baina Gurrutxagak min hartu zuen eta Kepa Arrizabalagak ordezkatu du finalerdietan eta finalean. Hortaz, hiruren artean eskuratu dute Lehen Mailako txapela.



Aiastiako bolatokian hasiko dute zapatuan Gipuzkoako Hiru-txirlo Bola joko txapelketa



Bi urteko etenaren ostean, badator berriro ere Gipuzkoako 51. Hiru-txirlo Bola joko txapelketa. Aurtengo txapelketak 11 jardunaldi izango ditu, eta Elgoibarko bolatokietan jokatu dituzte horietako bi, aurrenekoa Aiastian (bihar, 17:00etan) eta laugarrena Idortoben, apirilaren 23an. Azkoitian jokatu duten 10. jardunaldia Final Eguna izango da, eta 11. jardunaldian Lehendakari Saria jokatu dute, Soroluzeko San Andres bolatokian. Aurtengo txapelketak badu, baina, berritasun bat, jardunaldien bezperan ere, barikuetan, jaurtialdiak egingo baitituzte zenbait bolatokitan. Aiastiakoa da horietako bat. Horrenbestez, gaur gauetan ere egingo dituzte jaurtialdiak, 23:00etatik aurrera. Horietan edonork har dezake parte, izan federatu edo federatu gabe. Hiru laguneko taldeak osatu dituzte eta partida bakoitzean parte hartzeko euro bat ordaindu beharko da, eta bi jaurtialdi egiteko aukera izango du partaide bakoitzak. Txirlo gehien josten duen bolariak eramango du batutako diru guztia. Era berean, jokatzen diren lehen bost partidetako emaitzekin jokalaria erregularrenaren sailkapena osatu dute, eta barikuetan tiraldiak egingo dituzten bost bolatokietan txirlo gehien josten dituen taldeak edota bolariak irabaziko du sailkapen hori.

Liderrari irabazita igoeratik gertuago dago Alcorta

Alcorta Forging Group eskubaloi taldeak 30 eta 27 irabazi zion igoera faseko liderrari, Indupime Basauriri, joan den zapatuan Olaizagan jokaturako partidari. Sailkapenean puntu bateko alde dute orain: 11 dituzte bizkaitarrek eta 10 elgoibartarrek. Partida nahiko gogorra izan zela azaldu dute, hasieran erritmoa hartzea kosta zitzaizela eta horregatik heldu zirela lau goleko desabantailarekin atsedenaldira (10-14). Bigarren zatian hasieran defentsako lana gogortu zuen Sanloko taldeak, eta markagailua parekatzeaz gainera, hiru goleko errenta lortu zuten amaieran. Alcortak apirilaren 3an jokatu du igoera faseko hurrengo partida, azkenurrekoa, Aloña Mendiren aurka. Olaizagan izango da. Txantxikuek elgoibartarrek baino puntu bat gutxiago dute, eta hortaz, partida hori irabaziz gero, igoerako kanporaketa jokatzeko sailkatzea lortuko luke Alcortak.

Skate Eguna, bihar

Elgoibarko Udalak Skate Eguna antolatu du biharko, martxoak 26rako. Hainbat ekitaldi izango dira 10:00etatik 18:00etara bitartean Basarteko patinatzeko pistan: skate ikastarokak, skate librea eta musika, besteak beste. Maria Elosegui eta Alexia Navia skaterrek ikuskizun bat ere emango dute, 16:00etan. 9 eta 15 urte bitarteko gazteek parte har dezakete, aurrez izena emanda. Aldiz, 17:00etatik aurrera egingo duten skate libre saioan nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute.



LANA.....**Eskaerak**

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, asteburuetan. Etxeko langile moduan lan egiteko ere prest. ☎ 643 584 198

Adinekoak edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko prest nago, orduka, asteburuetan edo gauetan. Esperientzia eta beharrezkoa den titulua ditut.

☎ 660 511 781 / 943 742 330

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago, orduka edo asteburuetan. Garbiketa lanak egiteko ere prest. Berehalak hasi teko moduan nago. ☎ 642 044 712

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo asteburuetan. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. ☎ 631 677 339

Ingeleseko klase partikularrak emateko prest nago, LH, DBH zein Batxilergo mailetan. ☎ 655 392 365

Edozein lan egiteko prest nago, aste barruan. Eskola partikularrak eman, zerbitzari lanak... Euskalduna naiz.

☎ 684 221 398

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, orduka. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago.

☎ 631 229 408

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua daukat, eta paperak legez.

☎ 654 994 405

Adinekoak edo 2 urtetik gorako umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko prest nago. Etxeko langile modura zein orduka.

☎ 632 382 740/ 632 671 842

Adinekoak zaintzeko prest nago. Gauzez, asteburuetan edo etxeko langile moduan. Esperientzia eta beharrezkoa den titulua daukat.

☎ 602 490 595

Edozein lan egiteko prest nago, goizez edo asteburuetan.

☎ 643 071 900

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.

☎ 643 411 292

Eskaintza

Estetika zentro baterako estetizista behar da. Esperientzia kontuan hartuko da, eta euskaraz jakitea, ezinbestekoa da. Bidali curriculumak olamarsan@gmail.com helbidera.

GARAJEAK.....

Garaje plaza salgai edo alokairuan, Kalamua kalean. ☎ 650 043 495

AUTOAK.....

Volkswagen Golf autoa salgai. Egoera onean. ☎ 679 830 438

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

Iragarkiarri erretratua jarri gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

Iragarkiarri erretratua jarri gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Fincas
Euskadiko Finka Administrazioaleen Lurralde Kontseilua



**ROSA Ma
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Nire garaje komunitatean, jabea ez den pertsona batek erabiltzen du aparkaleku bat. Gainera, ez dauka jabearen baimenik. Orain dela gutxi bilera bat egin dugu eta jabeak jakinarazi du bere tokia komunitateko kide ez den norbaitek erabili ez dezan giltzez itxiko den metalezko malguki eraisgarri bat ipiniko duela. Bere garaje tokiaren barruan jarriko du, mugatik barrurantz metro batera. Jakin nahi nuke ea instalazio hori egin dezakeen ala mugaren bat dagoen horretarako.

Aparkatzeko gune pribatuak itxeko kateak jartzeak ez du eraginik eraikinaren egiturari, itxuran edo kanpoko egoerari, oso obra txikia delako. Aparkaleku gune pribatuaren ingurutik barrura eginez gero eta garajeko kideek beren ibilgailuak maniobratzerakoan egitura hori jotzeko eta hauek kaltetzeko arriskua badute instalazio horiek kendu egin beharko lirake. Elementu horiek aparkatzeko gune barruan jarri eta maniobrak oztapatzen ez badituzte, ez da jartzea debekatu behar eta jabeak ez du batzordearen baimenik beharko ipintzeko.

Aholkua: komenigarria da tokiko hirigintza-ordenantza begiratzea debekuren bat ba ote dagoen jakiteko.

ASESORIA
GO/R

AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.




Zorionak, **Intza!** 5 urte handi beteko dituzu astear-tean! Ondo-ondo pasa eta segi orain arte bezain alai. Patxo handi bat familiako guztion partez.




Zorionak, **Danel,** mutil handi! Muxu handi bat familia-koen, eta bereziki, Markel eta Endikaren partez.



Zorionak, **Nora,** martxoaren 28an 8 urte egingo dituzulako. Aitxita eta amamaren partez, oso ondo pasa. Muxu handi bat.



Zorionak, **Martin,** alzo 10 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, etxekoen partez.



Zorionak, **Danel,** martxoaren 28an 10 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



Udaberriarekin batera iritsi da zuen urtebetetzea. Zorionak, **Amaia, Ane eta Miren!**



Zorionak, **Martin!** 5 urte handi bete dituzu! Patxo handi bat, etxeko denon partez.



Zorionak, **Sara,** zure hirugarren urtebetetzean! Etxekoen, eta bereziki, lehengusina Laia- ren partez. Muxu handi bat.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarrek agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

Depilazio hoberenerako, espezialistarik onenak

Urazandi 9, behea - Elgoibar - www.kimabioestetika.webkoibox.com

Hiru sistema batean

Neodimioa
Eraginkorra ile ilunean, azal argian edo gaztaina-koiorekoan

Diodoa
Eraginkorra ile finean eta larru oso beltzaranetan

APL
Eraginkorra da mota guztietako ileetan eta beltzaran- duko gabeko larruazalean

Hitzordua hartzeko: **646 563 706**

TRIPHASE

943 743 704
688 769 657

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean

Galdetu prezioak eta gustura erantzungo dizugu.

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR

EXPRESS ESKAINTZAK!

RB38T674CSA/EF
SAMSUNG COMBI-A

799 €
(Prezioa unitateko)

- Ez frost
- Edukiera: 390 litro
- Altuera: 203 cm
- Inox premium

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

25 BARIKUA

20:00 Elkarretaratzea: 'Preso gaixoak etxera'. Sarek antolatuta, Kalegoen plazan.

22:30 Kontzertua: Muzak. Kultur Etxeko sotoan.

26 ZAPATUA

9:00 Hileko azken zapatuko feria. Baserriko produktuak jarriko dituzte salgai Kalebarren plazan, eta eguerditik aurrera, ganadu erakusketa egingo dute.

10:00 'Skate herria': Haur, nerabe eta gazteentzat skate eguna. Basarteko skate parkean. Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko Sailak antolatuta.

10:30 Herri Kirol eguna, Mendaron, Hodei Ezpeleta eta Uxue Ansorregi kirolarien erakustaldia barne. Arno Guraso Elkarteak antolatuta, Jon Larrañaga herriko kirolariaren eta Udalaren laguntzarekin. Mendaroko eskola-umeentzat.

11:00 Musika Eskolako trikitilari eta panderojoleen kalejira. Inazio Bereziartua musika eskolak antolatuta.

19:30 Antzerkia: 'Hackerrak'. Nomofobikoak antzerki taldeak taularatuko du, San Agustin kulturgunean.

27 DOMEKA

16:30 Familia antzerkia: 'Tempus'. El que ma queda teatre konpainiak aurkeztuko du, Herriko Antzokian, euskaraz.

19:00 Kontzertua: Islabat. Kultur Etxeko sotoan. Sarrera, 5 euro.

28 ASTELEHENA

18:00 Emakumeen hausnarketarako saioa: 'Zoru itsaskorra'. Lilan.

29 MARTITZENA

17:30 Hitzaldia: 'Substantzien kontsumoa. Zer egin dezake familiak?'. Treba Gurasoak taldeak antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

18:00 Literatura tailerra: Ray Bradburyren *Crónicas marcianas* liburua landuko dute. Haizeak antolatuta, Udal Liburutegian.

30 EGUAZTENA

19:00 Epeletan literatura tailerra: Amaia Telleriaren *Haize-lekuak* liburua landuko dute. Udal Liburutegian.

1 BARIKUA

10:00 Korrikari ongietorria. Mauxitxa txarangaren kalejira, Kalegoen plazatik Sigmako zubira.

10:10 Korrikarri harrera, Sigmako zubian, Mauxitxak girotuta.

14:35 Korrika Txikia. Maalako parkean hasita. Herri Eskolak eta Ikastolak antolatuta.

19:00 Filma: 'Tipularen sehaska kanta'. Lander Garrok zuzendutako dokumentala da, gaixotasunak espetxean eragiten duen samina azalertzeko. Sarek antolatuta, Herriko Antzokian. Doan.

19:00 Bideo foruma: 'Colette'. Haizeak antolatuta, Lilan.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Muerte en el Nilo'

25 barikua: 19:00

26 zapatua: 19:00 / 22:15

27 domeka: 19:00

28 astelehena: 21:00



ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan udako ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, martxoaren 27an, **ordubetez aurreratu beharko** da ordularia; 2:00etan 3:00ak izango dira.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00			Larunbatak: 9:00-14:00 (*)		
25 BARIKUA	26 ZAPATUA	27 DOMEKA	28 ASTELEHENA	29 MARTITZENA	30 EGUAZTENA	31 EGUENA	1 BARIKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti *Arriola	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Esther Mendinueta Berastegui.
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106

ETA, DEBABARRENEAN ZER?

'BARREDROMOA' UMORE SAIOA, EIBARREN

MARTXOAK 30, 18:00ETAN, MARKESKOA JAUREGIAN

UEUk 50 urte betetzen dituela ospatzeko, Eibarko Korrika kulturalaren baitan *Barredromoa* ekitaldia egingo dute Markeskoan, hilaren 30ean, 18:00etan. Saio honetan UEUko bazkide eta lagunek (tartean eibartarrak) zientziaz, unibertsitateaz eta UEUri buruzko umorezko bakarriketak taularatuko dituzte. Honako hauek parte hartuko dute: Oier Araolaza 'Dantzan.eus'-eko kideak, Ana Galarraga Elhuyarrekook, UNI Eibar-Ermuako irakasle Gorka Guenagak, Josu Lopez Gazpio kimikari eta UEUko irakasleak, Mirari Martiarena Komunikazioan adituak, Leire Narbaiza euskara irakasleak, Olatz Perez de Viñaspre informatikariak eta Koldo Garcia genetista eta UEUko zuzendaritzako kideak. Idoia Torregarai. UEUko komunikazio-arduradunak aurkeztuko du. Izena emateko: komunikazioa@ueu.eus



Merkealdia!

**Sukalde edo jangelarako
mahaia, aulkiak eta tabureteak.**

**Aukera guztiak.
Zatoz gure katalogoa
ikustera!**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Rosario Garate Goiartzun

2022ko martxoaren 17an hil zen, 102 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Bizitzaren destinua kunplitu duzu.
Zure arnas epelak ez du gehiago gure aurpegia laztanduko.
Urrezko liburua da gelditzen zaiguna,
noiznahi eta non-nahi ireki eta orrialde
bakoitzaren oroimenetik argazki berriak eraikitzeko,
amaierarik gabeko hegaldian.*



I. URTEURRENA

Maria Pilar Intxausti Muguruza

2021eko martxoaren 26an hil zen, 89 urte zituela

III. URTEURRENA

Eduardo Iraegi Zamakola

2019ko urriaren 10ean hil zen, 93 urte zituela.

*Maitasunez,
beti gure bihotzetan.*

Senideak




Ramon Torrella Vildosola

2022ko martxoaren 19an hil zen, 56 urte zituela.

'... eta bere itsasontziari Libertad deitu zion...'

Zure kuadrilla



Turismorako zein enpresen beharretara egokitutako hotel estrategikoa

Urteetan Azitain gainean ikusi izan dugun etxeak hartu du bizia: Hiru izarreko Arriarte hotela zabaldu dute bertan, eta berehala zabalduko duten erretegia ere izango du. Punta puntako azpiegiturak dauzka bezeroei eskaintzeko, eta turismorako zein enpresen beharretarako prestatuta dago. Iker Salgadok kudeatuko du hotela, eta Salua Srassi da proiektu berri eta berritzaile honen ardura hartuko duena. Hotela zabalik dago, eta jatetxerako erreserbak egiteko aukera ere zabalik dago.

Ireki berri duzue Arriarte hotela. Zein ezaugarri ditu?

3 izarreko hotela da. Eibarren dago kokatua, Azitainen, autopista sarreratik bertan. Kokaleku estrategikoan dago, izan ere Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuen erdian kokatuta dago, eta hirurak distantzia berera daude, gutxi gorabehera.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzue Arriarte hotelean?

Turismorako hotela izan daiteke, batetik. Bere kokalekuagatik oso egokia izan daiteke Euskal Herria ezagutu nahi dutenentzat. Autopistaren sarrera bertan dago, eta hortik edonora joateko aukera dago, turismoa egitera. Era berean, garraio publikoa erabiltzeko aukera badago Eibarren, trena edo autobusa, esaterako. Baina turismoaz gain, Azitain industrigunea oso gertu daukagu, eta gune horretan enpresa asko daude. Inguruko herrietan ere industria asko dago, eta langile asko etortzen da kanpotik. Jende horri ostatu emateko ere prestatuta dago gure hotela. Lanera datozenentzako batzar gela bat ere badu hotelak. Argi naturala dauka gela horrek, eta teknologikoki ondo hornituta dago, langileen beharrak asetzeko. Enpresen edozein ekitaldi ospatu daiteke gela horretan, aurrez erreserba eginda. Gainera, topaketa horietarako catering zerbitzua ere eskaintzen dugu.

Zein azpiegitura ditu hotelak?

15 logela ditugu, espazio zabalekoak. Logela bakoitzak 14-21 metro koadro ditu, eta bezeroaren behar guztiak asetzeko hornituta daude: Wi-Fi konexioa dute gela guztiek, dutxa, ile lehorgailua, aire egokitua, telebista... Gure helburua bezeroa eroso sentitzea da. Nabarmendu

nahiko nuke gela guztiak intsonorizatuta daudela, bezeroek inolako zaratarik gabe atseden har dezaten. Horrez gain, gosaria, hamaiketako, bazkaria eta afaria ere eskaintzen ditugu. 24 orduko harrera zerbitzua daukagu hotelean, bezeroak lasai eta presarik gabe etorri ahal izateko. Badakigu gaur egun jende askok bakarrik bidaiatzen duela, eta horietako askok maskotak dituztela; beraz, animaliak ere onartzen ditugu hotelean. Hotelaren ingurunean animaliekin gozatzeko aukera handia eskaintzen du gainera; beraz, hemen gustura egongo dira animaliak eta jabeak.

Ostatu hartzen ez duena joan daiteke jatetxera?

Bai, jakina. Hotelaz gain, erretegia ere zabalduko dugu, eta ibilbide profesional handia daukan sukaldaria izango da arduraduna. Kalitatezko osagaiekin, kalitatezko otorduak eskainiko ditugu. Kalitatezko lehengaiak eta parrilla izango dira gure ezaugarri nagusiak. Erretegi menua eskainiko dugu, baina, horrez gain, eguneroko menuak eta menu bereziak ere prestatuko ditugu, eta karta ere izango dute bezeroek aukeran.

Ospakizun handietarako prestatutako jatetxea izango da?

Bai, ezkontzak eta bestelako ekitaldiak ospatzeko prestatutako jangela daukagu. Bi terraza handi ditugu bezeroen eskura: lehenengo inaugurazio egunean bertan erabiltzeko moduan izango dugu, baina bigarrena oraindik prestatzen ari gara. *Chill out* estiloko terraza prestatu nahi dugu, bezeroei gune are bereziagoa eskaintzeko.

Une zailenetan guztiaz arduratzen gara



TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR

Xixilion, z/g. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)



Hileta-zerbitzuak:

- 24 orduko hileta-zerbitzu iraunkorra.
- Agur pertsonalizatuak.
- Gestoria: azken borondateak, oinordetzak, pentsioak, aseguruak...
- Espainiako Estatuko eta nazioarteko lekualdaketak.

T. 943 747 386

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Basauri · Galdakao · Barakaldo · Portugalete · Santurtzi · Leioa ·
Getxo · Sestao · Karrantza · Zalla · Muskiz · Balmaseda